

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 28a / 675. zenbakia




AGR Arrasate - Corazonistas

EUSKADIKO MAILARAKO TXARTELA JOKOAN
DOMEKAN, 12:30EAN, ITURRIPEN

ORAIN ETA HEMEN: **ELKARTASUN EGUNA/6** • KULTURA: **'ESKUAK ELKARRI' IKUSKIZUNA/14**

ARGAZKIA: ARGAZKI PRESS

OSASUN GIDA/24



GOITBko aurkezle izan nahi?

Interesatuta egonez gero, deitu 943 71 23 95 telefono zenbakira eta utzi izen-abizenak eta telefono zenbakia.
Laga lotsak alde batera eta deitu!

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu zapatuen egingo dan Elkartasun Egunen moduko ekimenak?



KOLDO ZUBILLAGA
Langillie



JON MELGAR
Langillie



TXARO DE DIEGO
Langillie



MARIO NAJERA
Erretiraue



NAIARA ZABARTE
Ikaslie



MARTA ETXEBARRIA
Ikaslie

Neuk uste dot holakuek antolakete ondo dauela, jentie apur bat kontzientzieta-ko. Hala eta be, arazo hori konponketako gobernuek hartu biher daue benetako konpromisue.

Holakuek antolakete ondo ikusten dot, jentie konturaketako herri diferentien artien zelako aldie dauen. Komeni da holakuek egi-
ttie, beste batzuen egoerie zelakue dan ikusteko.

Holako ekimen danak die biharrezkuek. Neuk ume bat dauket apadrinaute, eta komeni jaku konturaketie guapo edo guapa egotie bai-
ño gauza inportantiauek badauzela.

Holako ekimenetan ataraten dan dirue benetan hegoaldeko jentiedako bada, ez dau txarto. Baiñe hori da inportantiena, benetan biher haundixen daukonai allegetie hori laguntzioi.

Neuk ondo ikusten dot hola-ko ekimenak. Uste dot kontzientziaute gauzela, baiñe ez dogule nahikue lagunketan. Eta geuk lagunketan dogunekin ezin dala gauza haundirik egin.

Hegoaldeko herrixei lagunketako egitten dien ekimenak ondo ikusten dittut; euren alde asko egitten dogule uste dogun arren, benetan be oso gutxi egitten doguleko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KULUNKA GUTXIEGI Herritar batek aditzera eman digu bere umea Zaldibarren jolasten ibiltzen dela. Orain dela gutxi, kulunka batzuk kendu egin dituzte konpontzeko-edo, eta, hala, han batzen diren umeek ez daukate jolasteko kulunka nahikorik. Horrez gain, due-
la gutxi kulunka bat apurtu egin zen eta ume batek sekulako sustoa hartu zuen. Udalari halako jolasguneak hobeto zaintzeko eskatzen dio.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KULTURA /15

GAZTEAK /13

Aste Berdea antolatu dute

Ingurumenarekin lotutako ekimen ugari egingo dituzte datozen egunotan, Udalak antolatuta.

Numen taldeari elkarrizketa

Gaur, egubakoitza, Numen musika taldeak hirugarren diskoa aurkeztuko du gaztetxean.

Bertso udalekuak

AEDko bertso eskolak eta Txatxilipurdik bertso udalekuak egingo dituzte uztailean.

ASTEKO DATUA

1.000

ERRETIRATU BATUKO DIRA ZAPATUAN BAZKARIAN

Bihar, zapatua, mila erretiratu batuko dira Musakolako kiroldegian egingo duten bazkarian. Urtero moduan, SUDCek hartu du bazkari erraldoi hori antolatzeko ardura.

BESTE EKESANA

“ Oraindik preso edo ihesean dabil berba. Pintzelak ere gabitu. Oraindik ez da gure ordu handia heldu eta, esperoan, ahalean, borrokan segitzen du hitzak. Eta gu, hemen, urrunetik batzuetan, gertutik besteetan, baina maitasunez beti, zuon ekarpen literario eta kulturalen zain gaituzue Ataramiñe-rako. Baina bai garaia dela zuoi zuen-gure lanaren kontu emateko. Tenorean gaude eta horretara goaz (...). Gure pozerako gero eta ugariagoa izan da zuon parte-hartzea eta salmentak ere handiagotu dira Durangoz aurrerako bidean. Izan ere, zuen borrokaren antzera, historiako idazten ari zarete, askatasunerako, noizbait gabitu bizi gineneko garai ilun bat, non...”

ENRIKE LETONA
'GARA'/04-05-23

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Mercado medieval

Medina del Campon egon naiz asteburuan, edo Burgosen, edo Mirandan. Ez dakit ondo non egon naizen ere. Ohi bezala, ostiralean iritsi nintzen herrira. Kalebazterrak bandera, izara eta bestelako apaingarriz josita zeuden. Errepublikazaleenak ere telebistaren aurrean lelotu dituen ezkontza monarkiko horren ospakizunak izango zirela pentsatu nuen hasieran.

Tira, biharamunean konturatu nintzen Arrasateko *Erdi Aroko Azoka* deitzen zela hura. Tartetxo bat hartu nuen denboran bidaiatu guran edo: merkatari, titiritero edo ferianteen artean nahastu gura nuen. Baina hara non, denboran bidaiatzea ere tokatu zitzaidan: *panadero*-ak, *carnicero*-ak, *bruja*-k, *joyero*-ak, *carpintero*-ak... ikusi nituen nonahi. *Buenos dias Arrasate!*-ren gisakoak ere entzun ahal izan ziren.

Eta gerora jakin dut, atzerrian kontratatutako enpresa batek diseinatu, antolatu eta zehaztu duen egitarau bat izan dela guztia, edo ia gehiena. Berdin hemen edo Errioxan, Balmasedan edo Burgosen. Erdara hutsean, gehientsuenetan kanpotik etorritako taldeak... tira, egon zen herriko kultur eragile edo artisaurik, baita herriko jauntxorik ere... baina zein partehartze egon da? Zer eta nor hartu da kontutan? Zein da azokaren zerbitzua?

Ea hurrengo batetarako herriko kultur talde, nekazari, artisau eta bestelako herritarrak bilduta geure azoka bat egiten dugun. Euskal Herrian hedatzen ari den “Jai eta herri kulturaren aldeko manifestua” da horren lekuko. Bil gaitetzen, egin dezagun jai herrikoien aldeko apustua! Jai herrikoien nahi eta behar ditugu, eta Arrasatek badu horretan esperientzia eta ibilbide oparoa. Ez dezagun galtzen utzi.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@oiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 28**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ZAPATUA, 29**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- DOMEKA, 30**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 31**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- MARTITZENA, 1**
Azkoaga. Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 2**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . 943 79 22 26
- EGUENA, 3**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 4**
Amezua. Santamarina 32. 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- AMBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Asteleheneetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . . egun osoa

- Arrasate**
Asteleheneetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzaillea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- AMBULANTZIAK**
Gipuzkoako Ambulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (meza nagusia) (euskaraz) 12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)
- Urizarri parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
- San Andres eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 (euskaraz) San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jai egun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ETXEBIZITZEN GAINEAN
Martitzenean, ekainaren 1ean, Gillermo Pereak *Esperientzia eta lana. Gasteizko esperientzia* azalduko du Monterronen, 19:30ean. Mondrauetarrak taldeak antolatu du.

JULIO URKIXO IBARRA, 2
Gaurtik, egubakoitza, ekainaren 4ra arte, Aldundiak Julio Urkixo Ibarra filologoaren gaineko erakusketa ipiniko du Monterronen.

RIKARDO AZKARGORTA
Rikardo Azkargortak margolanen erakusketa ipini du Arregi galerian (Maala kalean).

HAUR HEZKUNTZA
Eguenean, ekainaren 3an, Jose Felix Aspizua psikologoak *Barrea arazoan aurrean* leloa duen berbaldia egingo du, San Viator Txikiko aretoan, 18:00etan. Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzak antolatuta.

ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA
Martitzenean, ekainaren 1ean, tronboi, bonbardino eta tuba kontzertua Musika Eskolan, 19:15ean. Egubakoitzean, ekainaren 4an, Arrasate Musika Eskolako Konboa eta Big-band taldeek Amaia Udal Antzokian, 19:00etan.

AEDrenAGENDA

KULTUR ERROTA
Gaur, egubakoitza, Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak *7 gezur txiki* ikuskitzuna egingo dute Jai Zale tabernan, 23:00etan.

MANIFESTAZIOA IRUÑEAN
Kontseiluak manifestazioa antolatu du ekainaren 5erako, 17:30ean, eta autobusa antolatu dute. Eman izena AEDn, zazpi euroren truke.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urizarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


AHTren aurkako ibilaldia egin zuten

Arrasateko Abiadura Handiko Trenaren aurkako batzarrak ibilaldia egin zuen Aramaiora. Ehun bat lagunek esku hartu zuten, eta trena nondik egin gura zuten aztertu zuten. Horren ostean, batzar informatiboa egin zuten Aramaioko zinema aretoan, eta jende askok esku hartu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korotz"



Ardi, koneju eta abarren kaka. —Ardi korotzez beteta zeuen bidia.


GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

ASTEKO MINIMA	6 °C		
ASTEKO MAXIMA	32 °C		
ASTEKO EURIA (Batatz best. l/m ²)	xx L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztenua, 19	32 °C	9 °C	- l/m ²
Eguena, 20	32 °C	10 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 21	28 °C	11 °C	1,2 l/m ²
Zapatua, 22	19 °C	15 °C	0,2 l/m ²
Domeka, 23	20 °C	11 °C	- l/m ²
Astelehena, 24	28 °C	6 °C	- l/m ²
Martitzena, 25	28 °C	9 °C	- l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Erdi Aroko azokaren gaineko balorazioa

Udaleko Kultura Saileko buru Ines Aldairi egindako elkarrizketa izango da entzungai zapatu eta domekan. Joan den astean egin zen Erdi Aroko Azokaren gaineko balorazioa egiteko eskatu diogu. San Juan jaien antolaketa zelan doan ere azaldu digu. Aldairi egindako elkarrizketa 10:15ean eskainiko dugu, beste hainbatekin batera. Esate baterako, ETBko aurkezle Jon Plazaolarekin izandako solasaldia. Plazaolak Arrasate Irratian jardun zuten.

Debagoieneko triatloia ez egiteko arrazoiak

Astelehenean kirolei eskaintzen diegun tarte berezian, Debagoieneko triatloia zergatik geratu den bertan behera azalduko digu Antxintxika taldeko Asier Barrainkuak. Ekainaren 5erako zuten antolatua, baina bat-batean ez egitea erabaki dute. Martitzenean, berriz, Iñaxio Perurena harri-jasotzaileari egindako galdera sorta errepikatuko dugu. GOITBrako Aintzane Gardoki kazetariak egindakoa eskainiko dugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Ines Aldairi, Jon Plazaola; Gotzon Arzelus, Goienako publicitate kanpainaz; Joserra Unzurrunzaga, ONCEko langilea...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean Iñaxio Perurena
- EGUENA**
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Mondragoetar bat atxilotuta, domekan

Domekan, goizeko 08:00ak aldera, ertzainek J.F.H. inisialdun 35 urteko mondragoetarra atxilotu zuten San Andresko Azeri kalean, kale horretan dagoen diskotekaren parean. Ertzainen esanetan, atxilotua hainbat autori kristalak hautsi eta kolpeak ematen hasi zen.

Baina, autoetan kalteak eragitearekin konforme ez, eta kalean zeuden gazteei laban batekin mehatxatzen hasi zen. Mehatxatu bakarrik ez, gazte bati labankada eman zion-eta. Zorionez, ez zen zauri larria izan. Ertzainek diligentziak egin eta auzitegiari atxilotetaren berri eman zioten.

Urte oparoa MCCrendako

Joan den egunean elkartu ziren MCCko egoitza nagusian taldeko zuzendari gehienak, iazko datuen berri emateko asmoz. Nahiz eta nazioartean egoera ekonomikoa egonkorra ez izan, iaz 1.702 lanpostu sortu zituen MCCk. Horrez gain, Arrasateko taldeak 2002an baino emaitza hobeak lortu ditu.

Gainera, Jesus Cataniak, Kontseilu Orokorreko lehendakariak, gaineratu zuen etorkizunari begira nazioartea sendotu egin gura duela MCCk. Nazioarte mailan 17 enpresa berri ireki gura dituzte; batez ere, Txinan, Mexikon eta Europa ekialdean. Egun, 68.260 langile ditu MCCk.

Biteriko aparkalekuak aurrera

Eraikuntzaren greba dela-eta, Biteriko aparkalekuetako lanak gelditu dauden arren, lur azpiko aparkalekuen proiektua aurrera doa. Aparkaleku horietan 598 plaza izango dira erabilgarri. Horietatik 150 txandakakoak izango dira; hau da, edozeinek erabili ahal izateko lekuak izango dira. Gainontzeko 448 plazak lagapen erregimenean jarriko ditu Udalak. Interesatuak aparkaleku plazak erosi ahal dituzte datozen 50 urteetarako. Hasita daude eskaerak egiten.



Erdi Aroko Azokan, jende asko

Joan den asteburuan Arrasaten egin zuten Erdi Aroko jaia arrakastatsua izan zen. Guztira 70 saltoki inguru izan ziren ikusgai, eta zapatu goizean eguraldiak larregi lagundu ez bazuen ere, jende asko ibili zen herriko alde zaharrean. Domekan, eguraldiak lagunduta, giro paregabea izan zen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Erabakitzeako aukera

Honako testu hau idatzi dudun egunean, irratian bi albiste esanguratsu entzun ditut. Bat ona eta bestea txarra, txisteeetan moduan. Batetik, dagoeneko Espainiako Estatuko unibertsitateetan ikasten gizona bakoitzak emakumezko gehiago daudela. Eta bestetik, Espainiako Estatuko armada Iraken izan den denboran egun bakoitze-

ko milioi bat euroko gastua egin duela gobernuak, hau da, guk geuk, zergak ordaintzen ditugunok.

Unibertsitatean ikasketak egiten dabilzan emakumeen berria ona da, behingoz ohituren eta bestelako aldaketak sumatzen hasi direlako. Gizona bakoitzak jakingo du zergatik ez diren unibertsitateetara joaten, baina emakumezko askok ez

dituzte horretarako aukera berdina izan, eta zenbaki horiek zerbait adierazten dute.

Bestetik, lotsagarria da armadek halako dirua gastatzea, eta batez ere armadak egotea. Zenbat premia dauden diru horiek erabiltzeko! Armadarik ez baleude, eta armamentuan gastatzen den dirua beste zereginetarako erabiliko balitz, ez litzateke asteburu-ko moduko Elkartasun Egunik antolatu beharko.

ASTEKO IRUDIA



IKER BARANDIARAN

ONCE-KO ZOZKETAK 350.000 EUROKO SARIA BANATU DU HERRIAN

Joan den egubakoitzean, ONCEk 350.000 euro —ia 60 milioi pezeta— banatu zituen Arrasaten. Ernesto Trigasek, Arbolapetan egon ohi den saltzaileak, zenbaki hori zeramaten hamar kupoi saldu zituen. Kupoi bakoitzeko, beraz, 35.000 euro jasoko dituzte sarituek. Jatorriz galiziarra da Trigas, baina 38 urte

daramatza Arrasaten, azkeneko 12 urteak kupoiak saltzen, beti toki berean, Arbolapetan. Aspaldian Espainiako Loteriako sariak banatu dituzte herrian, baina ez da ONCEko sari handirik banatu. Hala, Trigasek eta haren emaztea (biak irudian) oso pozik daude, eurek saririk eskuratu ez duten arren. /I.B.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6

(Legarre pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

ELKARTASUN EGUNA/ Hirugarren Munduari elkartasuna adierazteko eguna izango da bihar

Bihar, Hirugarren Munduari begira ipiniko da Arrasate, Elkartasun Egunaren bitartez

UBANE MADERA

Aagoeneko ohitura bilakatu da Arrasaten herriko gobernuz kanpoko erakundeek urtero antolatzen duten Elkartasun Eguna. Bihar izango da aurten-go. Eta denetarik egiteko aukera izango da, goizean hasi eta iluntzera arte, 11:00etatik 20:00ak arte.

Hori bai, betiere, kontuan hartuta Hirugarren Munduari elkartasuna adieraztea dela Elkartasun Egunaren helburua eta ekimen guztiak helburu hori lortzeko bideratuko dituztela.

Arrasateko gobernuz kanpoko erakunde mordoak parte hartu ohi du urtero egun hori antolatzen, eta aurten ere hala izan da: Harreman, Komite Internazionalistak, ISF-Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Mundu Solidarioa Helburu, Serso San Viator, Caritas eta NUBIk hartu dute parte.

EKIMEN GEHIENAK SEBER ALTUBEN

Seber Altuben egingo dituzte Elkartasun Egunean ekimen gehienak. Esan genezake lau gune izango direla han.

Batean, bidezko merkataritza bultzatzeko helburuarekin, Hirugarren Munduko herrialdeetan egindako zenbait produktu dastatzeko emango dituzte, eta halakoak erosteko aukera ere izango da: kafea, txokolatea, azukrea, mermelada, Kubako rona, artisautza, kamisetak... Betiere, nekazariari edo produktuaren egileari bidezko ordain-saria emanda egindako produktuak izango dira.

Seber Altubeko bestelako gune batean, berriz, tonbola bat ipiniko dute. Ibai Artek, Arrasateko merkatarien elkarteak, pro-


duktuak emango ditu tonbola horretarako. Batuko duten dirua izango da gobernuz kanpoko erakundeek Hirugarren Munduko herrialdeetan egiten dabilzan proiektuetarako; Kolonbiako San Clementerako, adibidez.

ELKAR HEZI EGITASMOA

Ikasleek ere izango dute euren leku berezia Elkartasun Egunean. Hain zuzen ere, Elkar Hezi izeneko egitasmoan parte hartu duten ikasleak izango dira Seber Altuben.

Elkar Hezi egitasmoko arduradun Oscar Saizek azaldu digun moduan, garapen hezkuntzako balioak (elkartasuna, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak, generoen arteko harreman egokiak, kultur aniztasuna, kooperazioa...) gazteen artean lantzea da Elkar Hezi egitasmoaren helburua. Eta horretan jardun dute 2002-2003 ikasturtean; hain zuzen ere, orduantxe abiarazitako proiektua da eta Elkar Hezi.

Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako zenbait ikastetxetako ikasleek parte hartu dute ekimen horretan. Arrasateko kasuan, Mesedeetako ikastetxeko, San Viatoroko eta Ferixalekuko ikasleekin ibili dira lehen aipatutako balioak lantzeko lanean. Hala, ikastetxe horietan, ikasgai guztietan ahalgindu dira modu batean edo bestean balio horiek lantzen; besteak beste, material didaktiko berezia erabili dute eta irakasleekin hezkuntza eskolak izan dituzte. Horrez gainera, bestelako ekintzak egiten ere ibili dira: ikastaroak, erakusketak... Bihar, ikasturtea amaitzeko ekimenak egingo dituzte ikasleek; iaz, esate baterako, ikuskizun-



Tonbola, produktuak dastatzeko aukera, jolasak, musika eta bestelakoak izango dira Seber Altube plazan.

**11:00etatik
20:00etara izango da
Elkartasun Eguna;
ekimen gehienak
Seber Altuben dira**

nak, kantuak, muralak eta antzerakoak egin zituzten, betiere, urtean zehar landutako balioetan oinarrituta.

**GKEekin batera,
zenbait
ikastetxetako
ikasleak ere
izango dira**

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

Bestalde, eta etxeko taldeekin batera, bestelako gobernuz kanpoko erakundeek ere izango dute lekua Arrasateko Elkartasun Egunean. Alboan, Amnesty International, Intermon, Medicus Mundi, Pueblos Hermanos eta Gure Laguntza erakundeak etorriko dira. Helburua da bestelako herrialdeetan lantzen dabilzan proiektuen berri ematea, herrialde haietan dauden arazoak jakinaraztea..., betiere, informatzeko helburuarekin.

Eta esandako guztiari laguntzen, umeendako jolasak egingo dituzte eta liburuak, aldizkariak eta bestelako materiala izango da Seber Altuben.

NUBI: SAHARAREN ALDEKO ELKARTEA

Bukatze, eta aurtengo berrietasun moduan, sahararren aldeko NUBI elkarteak ere parte hartuko du biharko Elkartasun Egunean. Besteak beste, eta sahararrak zela bizi diren erakusteko, haima bat muntatuko dute. Seber Altuben leku nahikorik ez dagoela-eta, Herriko Plazan muntatuko dute sahararren

**Berritasun moduan,
sahararren aldeko
elkarteak ere parte
hartuko du, Herriko
Plazan**

bizileku berezi hura, kanpadenda erraldoi zuria.

Haima barruan sahararrak egingo dira, eta euren ohituretako batzuk erakutsiko dituzte egunean. Hala, nahi duenari hainekin marrazkiak egingo dizkiete eta tea emango diote, probatzeko. Era berean, sahararrek egindako eskututurrekoak, lepokoak eta antzerako bitxikeriak saltzen ibiliko dira. Eta egun osoan, musika sahararra entzun ahal izango dugu. Saharako Wali musika-taldearen eskutik. 19:00etan, saio berezia egingo du talde horrek. Horrekin guztiarekin batera, NUBI elkartearen gaineko informazioa banatuko du sahararren aldeko elkartearen gunean.

Horren harira, NUBI elkarteak dei egin nahi du udan datozen saharar umeak direla-eta. Kontua da dagoeneko lortu dituztela datozen ume guztiendako familiak, baina badaezpada umeen bat hartzeko gertu dagoen familia gehiago lortu nahi dituztela. Hala, izena emanda duten familietako batek kale egiten badu, umea hartuko duen beste familia bat ziurtatuta izateko.



Sahararren aldeko elkarteak, NUBI, haima bat muntatuko du Herriko Plazan, eta sahararrak etorriko dira.

ARRASATEKO UDALA

MERKATARIAK/ Datozen urteotarako zuzendaritza berria du Ibai Artek

Ibai Arteko zuzendaritza berria lanean buru-belarri

UBANE MADERA

Arrasateko merkatarien elkarteak, Ibai Artek, zuzendaritza aldatu du. Mayte loradendako Maite Osa izango da presidentea. Kontatu digu herriko giroa suspertzeko ekimenak antolatzeko asmoa dutela eta horixe lantzen dabilzala azkenaldian.

Honako hauek osatzen dute Ibai Arteko zuzendaritza talde berria: Mayte loradendako Maite Osa zumaiarra da lehendakaria; Phil-dar dendako Oihana Arregi, Landaluzeko Atsegiñe Lacalle, Eya dendako Idoia Etxagibel, Egizabal dendako Lide Madariaga eta Itzalako Poti Bastardo arduratuko dira gutunez eta antzekoez. Monte tabernakoak Udalarekin izan beharreko harremanaz arduratuko dira; eta Bed's eta Bea Lentzeria dendakoak kultura ekimenez. Eta horiei guztiei laguntzen, Otamendi harategikoez eta Juanma argazki dendakoek ere jardungo dute. Guztira, 11 lagunek jardungo dute Ibai Arteko zuzendaritzan.

ASMOA HERRIKO GIROA PIZTEA

Zuzendaritza berria dagoeneko lanean da buru-belarri. Maite Osak kontatu digun moduan, ia astero egiten dituzte batzarrak. Epe motzera begiratuta, Ibai Arteko zuzendaritzaren helburua da herriko giroa berpiztea, baita Ibai Arte elkarte bera ere. Horretarako ekimen bereziak antolatu nahi dituzte, kalean egiteko. Adibidez, oporrak baino lehen, San Juanei begira ibili dira zerbait antolatzekotan, baina denbora kontra dute horretarako. Horrez gainera, ikasturte amaierarako bestelako zerbait antolatzeko asmoa lantzen ere badabilzta, baina oraindik ez dute ezer lotuta.



Argazkian, Mayte loradendakoak; Maite Osa da orain Ibai Arteko presidentea.

11 laguneko taldea arduratuko da Ibai Arteko zuzendaritzaz datozen urteotan

Hori bai, adibidez, argi dute Gabonei begira zerbait antolatuko dutela, bestetan egin ohi duten moduan. Eta horrekin batera, herrian egiten diren ekimenetan lagundu egingo du Ibai Artek. Dagoeneko hasi dira hori egiten,

Epe motzerako duten helburua da herriko giroa berpizten ahalegintzea

adibidez, joan den asteburuko Erdi Aroko azokan.

Beraz, oraingo badute zer egin Ibai Artekoek. Eta orain artekoa ikusita, elkartearen eta Udalaren artean herriko giroa piztea lortuko dutela dirudi.

Eskolako Agenda 21 egitasmoa udalbatzarrari aurkeztu zioten

U.M.

Osoko bilkura berezia egin zuten atzo udaletxean. Hain berezia, ohiko politikariek batera batzar aretoa eskola-umez beteta egon zen. Eskolako Agenda 21 proiektua delata izan zen batzar hori.

Eskolako Agenda 21 egitasmoa lantzen ibili dira Mesedeetako Andre Mari ikastetxeko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo, San Viator Txiki, Santa Teresa, Ferixalekua, San Viator Handi eta Almen) ikasleak. Ikasturtean egindako lanekin ateratako ondorioak eta egoera hobetzeko proposamenak aurkeztu zizkieten atzo udalbatzarrari. Zaborra izan dute aztergai ikasleek. Hala, adibidez, atera duten ondorioetako bat da zaborra arazo handia dela eta zabortegeiek eta erraustegieiek kutsadura sortzen dutela; papera egiteko zuhaitzak botatzeaz gain, airea eta ura kutsatzen direla ere ikusi dute, besteak beste, zer egin daitekeen ikastetxeetan zabor gutxiago sortzeko.

ZABORRA PROTAGONISTA

Aurtengo ikasturte osoan jardun dute ikasleek Eskolako Agenda 21 proiektua lantzen. Eta, oro har, honako arloak landu dituzte: zein zabor mota sortzen diren, zaborrek zein ondorio sortzen dituzten,

Arrasateko kaleak garbiak dauden eta gure herrian zenbat zabor sortzen den, nola biltzen diren zaborrak... Hori guztiori egiteko, besteak beste, hainbat ekintza egin dituzte, bereziki, eskoletan saioak, Arrasaten ibilbideak eta Udalako Ingurugiro Eskolan egonaldiak. Guztira, 1.968 ikaslek parte hartu dute Agenda 21 egitasmoan, 6 eta 16 urte artekoak.

Esan beharra dago, besteak beste, hemendik aurrera aipatutako bi ikastetxeek ingurumenaz arduratzen den Arrasateko Kontseilu Sektorialean parte hartuko dutela.

Guztira, 1.968 ikaslek parte hartu dute aurten Eskolako Agenda 21 egitasmoan

Kontseilu Sektorialeko kide izango dira Arizmendikoak eta Mesedeetakoak

LABUR

Arazoei aurre egitearen gaineko hitzaldia antolatu du Arizmendi Ikastolak

Datorren egunean, ekainaren 3an, Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzako unitateak berbaldi bat antolatu du gurasoendako. San Viator Txikin izango da hitzaldia, 18:00etan hasita. Zera landuko dute: arazoei zela aurre egin, jarrera eraginkorrak... Jose Felix Aspizua izango da hizlaria, Gasteizko Mintza psikologia zentroko kidea.

Aldez aurretik deitu!



Zenbaki


Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 • Faxe: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@zenbaki.es

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.





BANDALISMOA/ Berrito ere apurketak egin dituzte Monterrongo komunitan

Kalte handiak egin dituzte Monterrongo komunitan

UBANE MADERA

Udaleko Zerbitzu Sailak jakinarazi digunez, joan den zapatuan, hilaren 22an, apurketak eragin zituzten Monterrongo komun publikoetan. Laugarren aldia da komun horien kontra egiten dutela. Gainera, oraingo honetan kalte handiak eragin dituzte.

Erabat haserre dago Udala Monterrongo komunitan gertatu denarekin. Prentsa ohar baten bitartez jakinarazi digunez, joan den zapatuan ezezagun batzuek apurketak egin zituzten komun

horietan. Gainera, kalte handiak eragin zituztela jakinarazi digute, 2.000 euro inguruko kalteak, hain zuzen ere: komunak, konketak, sabaia... Den-dena apurtu dute. Era berean, Udaleko Zerbitzu Sailak adierazi du ahalik eta lasterren konponduko dituztela komunok, baina bien bitartean itxita egon beharko dutela.

Udalaren esanetan, azken batean, halako erasoek herritarrei egiten diete kalte, denboraldi batez ezin izango dute-eta kaltetutako zerbitzua erabili. Era berean, jakinarazi dute gertatutakoa argitzeko eta halakorik berrito ez gertatzeko behar

diren neurri guztiak hartuko dituztela.

LAUGARREN ALDIA

Lehen aipatutako moduan, laugarren aldiz apurtu dituzte Monterrongo komunak. Iazko apirilean inauguratu zituzten. Egunez eta gauez, 24 orduz zabalik izatea zen Udalaren asmoa, ahalik eta zerbitzu osoena emateko. Baina hilabete bakarrean hiru bider eragin zituzten apurketak komun horietan. Hala, konketak egin ostean, Udalak erabaki zuen egunez bakarrik zabalduko zituela komunok, halako apurketak saihesteko.



Espainiako gerraren gaineko bideoa salgai

Zuei, hazia erein zenutenoi izeneko bideoa eta DVDa plazaratu ditu Fusilatuen Senide eta Lagunen Elkarteak. Arrasaten, Monte tabernan eta Arrasate Kristaldegian dago salgai; Bergaran, Pol-pol eta Zuhazti tabernetan; Oñatin, Altuna tabako dendan; eta Aretxabaletan, Gurea tabernan. Iaz sei hilabetean egindako kanpainaren irudiak eta 14 senideren elkarrizketa dakartza.

Lehiakide gutxi baina kalitate ona Emakume Txokoko argazki lehiaketan

U.M.

Maite Toledo antzuolarrak eta Ane Idigoras aretxabaletarrak irabazi dute Emakume Txokoak antolatutako argazki lehiaketa. Bost emakume aurkeztu ziren lehiaketara, guztira, 14 argazki. Guztiak ikusgai daude, txokoa.

Maiatzaren 1a oinarri moduan hartu eta argazki lehiaketa antolatu zuen Emakume Txokoak, emakumea eta lana uztartuko zituen argazki lehiaketa. Jasotako 14 argazkien artean, Maite Toledoren *Son Melodía* lanak irabazi du argazki onenaren saria; eta Ane Idigorasen *Errebarban* lanak irabazi du aukera berdintasuna hobeto lantzen duen saria.

Maite Toledok esplikatuakoren arabera, Habanan ateratako argazkia da, kamera digitalarekin. Ane Idigorasek ere kamera digitala erabili du argazkia atera-

LABUR

Datorren astetik aurrera goizean zein arratsaldean egin ahal izango dira ehorzketak

Datorren martitzenean, ekainaren 1ean, abiaraziko dute San Kristobal hilerriko zerbitzu berria. Horren arabera, martitzenetik aurrera, norberak nahi duenean egin ahal izango da ehorzketak goizean zein arratsaldean. Halako zerbitzua eskaintzen den aurreneko aldia da. Bestelako herrietan egiten dutela ikusi eta hemen ere eskaintzea erabaki zuen Arrasateko Udalak.

Datozen egunotan Aste Berdea ospatuko dute Arrasaten

U.M.

Oraingo asteburutik aurrera, ingurumenarekin lotutako ekimenak egingo dituzte Arrasaten. Izan ere, Aste Berdea ospatuko dute. Mendi irteerak, umeendako jolasak, lantegiak... izango dira.

Esan bezala, asteburuan hasiko dira Aste Berdeko ekitaldiak. Mendi ibilaldia izango da, Urtzi Mendizabal biologoaren gidaritzapean. Sendabelarrak, ondoak eta, oro har, natura ezagutzea da helburua. 09:00etan aterako dira mendizaleak udaletxetik eta autoan Arrasate-Elorregi-Bedoña-Udala-Arrasate ibilbidea egingo dute; bazkalordurako bueltan izango dira.

Aste Berdearen barruan beste ibilaldi bat ere izango da. Ekainaren 6an izango da bigarren hori, ekosistema naturalak ezagutzeko helburuarekin. Kasu horretan ere, Urtzi Mendizabal izango da gidaria; 09:00etan aterako dira anbulatorio aurretik eta Azuela-Andra Mari Zuri-Bedo-

ña-Arrasate ibilbidea egingo dute. Kasu horretan ere, bazkalordurako etxean izango dira.

HITZALDIAK

Bestelako ekimenen artean, datorren martitzenean, ekainaren 1ean, *Nekazaritza ekologikoa lurrarekiko txertaketa* izeneko hitzaldia emango du Argi ta Garbi elkarte kide Agustin Linazasorok, Monterronen, 19:00etan hasita. Eta ekainaren 3an, *Jasangarritasunaren argi-ilunak, gaur eta hemen* hitzaldia emango du EHUko irakasle Iñaki Antiguadadek, 19:00etan, Monterronen.

LANTEGIAK ETA JOLASAK

Bukatzeo, ekainaren 2an, eguaztena, lantegiak egingo dituzte, erosketa ekologikoaren lantegiak. 16:30ean izango dira, Herriko Plazan eta haurrendako zein helduendako izango dira.

Eta ekainaren 5ean, zapatua, umeendako puzgarriak eta birziklatutako jolasak ipiniko dituzte Seber Altuben goizean zein arratsaldean.



Argazkian, Maite Toledo eta Ane Idigoras, lehiaketako antolatzaileek lagunduta.

tzeko, baina, kasu horretan, gertuan ateratakoa da, Eskoriatzako Zertu lantegian, hain zuzen ere.

Lehiaketaren antolatzaileek esandakoaren arabera, halako

lehiaketek emakumei parte hartzeo aukera emateaz gain, hainbat kontraesan adierazteko bidea ere badira, betiere, aukera berdintasunari begira.



EMAKUME TXOKOKO LAGUNAK BERMEON IZAN ZIREN

Joan den zapatuan Emakume Txokoko 20 lagun Bermeon izan ziren egun-pasa. Goizean arrantzaleen museoa bisitatu zuten, eta gero kontserben lantegian izan ziren. Han, bertako emakumeek lana nola egiten duten ikusi ahal izan zuten, eta lan prozesuaren berri eman zieten. Gero, kaian, arraina nola saltzen zuten ikusi zuten. Eguerdi partean arrain azokan egon eta gero, bertan bazkaldu zuten. Arratsalde partean Gaztelugatxen izan ziren. Oso pozik itzuli ziren.



DAGOENEO HASI DIRA GAZTE ETA NAGUSIAK SAN JUANETARAKO DANBORRAK BEROTZEN

San Juan jaiak ondo-ondoan daude, eta danborradan esku hartuko duten gazte zein nagusiak dagoeneko hasi dira entseguak egiten. Egunean bertan danborra itxuroso jotzeko ondo entseatzeari behar-beharrezkoa da, danborradak garrantzi handia dauka eta herriko jaietan. Umeen danborradakoak orain dela bi aste hasi ziren

entseguak egiten. Zapatu goizetan elkartzen dira San Viator Txikin. Nagusiak, berriz, geroago hasi dira entseatzeko, eguaztenean egin zuten eta lehenengo saioa. Horiek, baina, astean bi entsegu egingo dituzte. Gainera, dagoeneko urte asko daramatzate danborra jotzen, eta ez dute praktika handirik behar. Ala?



HERRI ESKOLAKOAK BURUHANDIAK EGITEN

Arrasateko Herri Eskolakoek bidali digute argazki hau, seigarren mailan dabiltzanek, hain zuzen. Eta, argazkiari begiratuta argi eta garbi geratu da plastikako eskuletan ez direla gora begira egoten. Ikusi bestela argazkia en atzetik azaltzen diren lau buruhandiak, eskolan egin dituzte. San Juanak gain-gaiean ditugula eta, jaietan irteten direnek laguntza behar izanez gero, badakigu nori deitu.

ESKUBALOIA

AGRk domekan du Euskadiko Mailara igotzeko aukera, Corazonistasen kontra

Domeka eguerdian jokatuko du AGR Arrasate Eskubaloi Taldeak denboraldiko norgehiagoka garrantzitsuena: igoera faseko txartela dago jokoan

XABIER URZELAI

Igoera faseko azkeneko partidua jokatuko dute domekan (12:30, Iturripen) AGR Arrasate eta Corazonistas taldeek. Azkeneko partidua eta urte osoko garrantzitsuena, bi taldetako bat Euskadiko Mailan izango da-eta datorren denboraldian.

Arrasateko Eskubaloi Taldea da aurten Mondragoeko kirol taldeen artean maila onena erakutsi duena. Eta hori baieztatzeko ez daukagu zertan domekako partiduen zain egon. Domekan irabazi edo galdu, Arrasateko eskubaloiko zuzendaritzakoak harro egon daitezke jokalariek aurten egin duten lanarekin, baita taldeko jarraitzaileak ere.

Territorial maila txiki geratu zaiela joan den urtean ere erakutsi zuten, nahiz eta azkenean igoera fasetik kanpo geratu. Aurten, berriz, Ligan bigarrenak izan ziren, Urolaren atzetik, baina igoera fasean erakutsi dute gainon-

tzeko territorial mailako taldeen artean ez dagoela eurak baino hoberik. Urola globo handi bat zen Ligan, baina igoera fasean aire barik geratu da. Eta Bizkaiko Erromo eta Arabako Corazonistas taldeez gain, Arrasateko AGRk erakutsi du Euskadiko Txapelketan jokatzeke nahikoa maila baduela.

ZALEEN BEHARRA, DOMEKAN

Arrasatek gauza bat izango du alde domekan: etxean jokatuko duela. Hala ere, etxean jokatzeak abantaila txikia du, harmailetan herriko taldea bultzatzeko jarraitzaileak ez badago. Igoera faseko azkeneko jardunaldietan, baina, jokalariek mundragoetarrek igarri dute Iturripen jokatzen zutela, harmailetan zaleen berotasuna igarri ahal izan zuten-eta. Euskadiko Mailara igotzeko azkeneko urteotan izan duten aukera onena izango dute domekan, baina horregatik ez dago zertan itsututa kantxaratu. Lehen ere menderatu zuten Corazonistas, eta domekan ere gauza izango dira.



AGR Arrasateko mutilek izango dute zer ospatu domekan, Corazonistas taldea mende hartzen badute.

Zarautzen jokatuko du Mondrak denboraldiko azken norgehiagoka

X.U.

Mondrak oraingo asteburuan amaituko du denboraldia, Zarautzen kontra. Oraingo astean ere Mondrako entrenatzaileak hainbat aldaketa egingo ditu, seguru aski. Izan ere, datorren urteari begira argi izan gurako du zenbat jokalarik eman dezaketen benetako maila.

Mondrako entrenatzaileak Liga Txapelketa amaiera lasai hau hainbat proba egiteko aprobetxatu gura du. Eta, denboraldian zehar horrenbeste minutu izan ez dituzten jokalariek orain dute balio dutena erakusteko aukera.

HELBURUAK GARBI

Arrasateko taldeko zuzendariak helburu garbia du datorren urterako: taldeak hirugarren mailan egoteko egin behar du lan, eta Mondrako entrenatzaileari exijentzia hori egin badiote, berak ere eskubidea eta beharra du jokalariei daukatena erakusteko eskatzeko. Oraingo asteburuan zelairatzen den hamaikakoak ez dezala uste egin beharrekoa egin da dagoenik: Liga Txapelketari 90 minutu geratzen zaizkio-eta.

Zarautzek oso gertu ditu lehen




Mondrak denboraldia ondo amaitu gura du Zarautzen etxean.

bi sailkatuak. Bi jardunaldi gehiago izango balitu, baliteke oraingo asteburuko Mondraren kontrarioa hirugarren mailara igotzeko borrokan ibiltzea: baina dagoeneko berandu dabilta. Jaietsiera postuak dagoeneko argitu dira: Amaikak Bat, Hernani, Santo Tomas Lizeoa eta Ordizia geratu dira sailkapenaren zuloan, eta dagoeneko ezer gutxi dute egite-

ko. Hirugarren mailara zein talde igoko den, berriz, ez dago bate-re argi. Elgoibarrek kale egin zuen joan den astean, eta Berio ondo-ondoan dauka berriz ere. Beti Gazteren kontra jokatuko du Elgoibarrek, eta Trintxerperen kontra Berio. Azkeneko norgehiagokak erabakiko du urte osoko lana. Emoziorik ez da falta izango, ezta eskupekorik ere.

FOTOKIROLA



Jende dezente diapositiba emanaldietan

Astelehenerdik gaur arte Besaideko lagunek antolatutako Mendi Astearren barruan, diapositiba emanaldiak izan dira Monterronen, eta jende dezente hurbildu da ikus-entzunezko horietan eman dituzten abenturen berri izatera. Astelehenean izan zen lehen emanaldia, eta argazkian azaltzen den Juan Valle-jok, besteak beste, Argentinan, Kanadan eta Groenlandian egingako ibilbideen berri eman zuen. Gaur egingo du Eneko Pouk azkeneko diapositiba emanaldia, 19:00etan, Monterronen. /X.U



ARTXIBOA

Mondragoeko beterranoek maila polita erakutsi zuten joan den astean Frantzian jokatuak beterranoen txapelketan.

ERRUGBIA

Galiziako Landrus taldearen kontra jokatu du Arrasatek, bihar

Mondragoetarak lagun arteko partidua antolatu dute galiziarren kontra

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak lagun arteko partidua jokatu du bihar (16:30, Garagartzan). Denboraldia hasi aurretik talde mondragoetarra Lugon izan zen, eta orain galiziarrei tokatzen zaie Mondragoera etortzea.

Biharko lagun arteko partidua hainbat helburu ditu. Aspaldian norgehiagokarik jokatu barik egon eta gero, Arrasateko taldeari komeni zaio horrelako norgehiagoka bat jokatzeko, Nazioarteko Zazpinako Txapelketa dato-

rren asteburuan jokatu dute eta. Horrez gain, talde arrasatearrak goiko mailara igotzea lortu du, eta biharko norgehiagoka proposa da hori ospatzeko. Datorren urterako Errugbi Federazioak beste maila bat egin du, eta maila horretan egongo da Arrasate: Estatuko lehen mailako B multzoan, hain zuzen. Arrasateren multzoan zortzi talde izango dira: Santanderko Independiente, Zarautz, Bera-Bera, Gernika, Atletico San Sebastian, EHU-Bilbo eta Getxo B.

Arrasateko taldeak txapelketa polita izango du datorren denboraldian; maila oneko jokalariek

izango dira Garagartzan, eta orokorrean talde gogorren kontra jokatu beharko du Arrasatek. Horrek esan gura du talde mondragoetarrak esfortzu handia egin beharko duela.

BETERANOAK FRANTZIAN

Joan den astean, Arrasateko beterranoak Frantzian izan ziren, Tarbesko beterranoen txapelketan. Bost taldek hartu zuten esku, eta arrasatearrek partidua irabazi, bat berdindu eta bi galdu zituzten. Frantzian dagoen maila konfiantza izanda, ez da marka txarra. Txapelketaren ondoren giro ederrean ibili ziren.

ATLETISMOA

Gipuzkoako Txapelketan marka oso onak

Domekan, Gipuzkoako Atletismoko Txapelketan, Mondragoeko hiru atletak Huelvan jokatu den Espainiako Txapelketan esku hartzeko gutxienezko markak gainditu zituzten. Markel Blancok urrea eskuratu zuen kadete mailako lasterketan. Jonander Amadok ere lehenengo postua eskuratu zuen 300 metroko lasterketan, eta Iñaki Etxagibel ere lehena izan zen 100 metroko hesi-lasterketan. Horiez gain, Maria Jose Gilek ere urrea eraman zuen etxera 3.000 metroko lasterketan, eta Ander Perez de Arenazak brontzea eskuratu zuen.

ATLETISMOA

Jonathan Perezek 4,90 metroko jauzia, martitzenean

Martitzenean, Jonathan Perez eta Lander Errasti Anoetan izan ziren pertika jauzia egiten. Jonathan Perezek erraz egin zuen 4,90 metroko jauzia, eta bost metroko jauzia egiten ahalegindu bazen ere, atleta mondragoetarrak ez zuen marka gainditu. Estatu osoan 12 atleta baino ez daude bost metroko jauzia egiten dutenak, eta gehienak profesional moduan dabilta. Lander Errastik, berriz, 3,50 metroko marka dauka, eta ezin izan zuen marka hori gainditu, pertikaren gogortasunarekin arazoak izan zituelako.

TXIRRINDULARITZA

Gaur aurkeztuko dute Emakumeen Bira, Iurretan

Ekainaren 10etik 14ra bitartean korrituko den Emakumeen Biraren aurkezpena egingo dute gaur Iurretan. Emakumeen Bira Iurretako Txirrindularitza Elkarteak antolatzen du; lau etapaz osatutako bira izango da, eta lehenengo etapa Arrasaten amaituko da. Arrasateko Udalak jaso zuen lasterketari laguntzeko eskaera, eta Emakume Sailak eta AUKEAK dirulaguntza emango diote. Hori dela-eta, lehenengo etaparen amaiera zuzen-zuzenean ikusi ahal izango dugu Arrasaten, Garibai etorbidean egongo da eta helmuga.

MENDIA

Bittor Amozarrain mondragoetarra Gasherbrum II mendia igotzen saiatuko da

Ekainaren 12an irtengo da Bittor Amozarrain arrasatearra Himalaia aldera. Espedizioa Gasteizko beste bost lagunekin egingo du, eta gauzak gura moduan irteten badira uztailaren 31n itzuliko dira. Lehenengo aldiz saiatuko da Bittor Amozarrain zortzi mila metroko mendi bat igotzen, eta lehenengo aldia denez, ez du mendi gaitzera aukeratu gura izan. Ekainaren 12a baino lehen elkarrizketa irakurri ahal izango duzue ARRASATE PRESSEn.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Etterat - Betraye	8-2
Lasagabaster - Dribling	6-1
Saukelu Scream - You Know!	2-3
AC Surcos - Iritzuta Taberna	6-2

PARTIDUAK

MAIATZAK 29, ZAPATUA.

10:50:	AC Surcos - Saukelu Scream.
12:00:	You Know! - Iritzuta Taberna.
16:50:	Betraye - Dribling.
18:00:	Etterat - Lasagabaster.

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Lasagabaster	4	2
2. Etterat	2	2
3. Dribling	2	2
4. Betraye	0	2

B MULTZOA	P	J
1. You Know!	4	2
2. AC Surcos	2	2
3. Saukelu Scream	2	2
4. Iritzuta Taberna	0	2

HIRUGARREN FASEA HASI ORDUKO AMAITU

YOU KNOW! SAILKATUTA, ETA IRIZTU TABERNA AUKERA BARIK

You Know! taldea dagoeneko sailkatuta dago, eta Iritzuta taldearen kontra jokatu duen norgehiagokak ez du garrantzia handirik izango. Ez, Iritzutakoendako ere ez dauka berebiziko garrantzirik, dagoeneko ezin dute-eta ezer egin. Hala, AC Surcos eta Saukelu Scream taldeen arteko partiduan erabakiko da B multzoko bigarren sailkatua zein izango den, hortaz, zapatuko lehenengo partidua izango da goizeko partidua interesgarriena. Baina zapatu arratsaldean izango diren partiduetan gauzak bestelakoak dira. Lasagabaster da lehenengo postuan sailkatua dagoen taldea, baina ez daukate hurrengo faserako txartela ziurtatuta. Betraye, berriz, azkena da, baina horrek ez du gura esan dagoeneko kanporatuta dagoenik. Lasagabasterrek puntu bat nahikoa du hurrengo faserako sailkatzeko. Betrayerrek zailago du, norgehiagoka irabazteaz gain, gainontzekoen emaitzen zain egon behar du-eta. Eta tartean daude Etterat eta Dribling. Zapatu arratsaldean ere gura besteko emozioa izango da Zaldibarren.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Zarautz - Mondra
Preferentea. Domekan. 17:30. Zarautzen.

Ikasberri - Arrasate C
Big. Gazteak. Zapatuan. 10:45. Azpeitian.

ESKUBALDIA

AGR Arrasate - Corazonistas
Igoera fasea. Domekan. 12:30. Iturripen.

Arrasate - Leizaran
Kopa. Domekan. 10:30. Iturripen.

Bergara - Arrasate
Kadeteak. Kopa. Zapatuan. 17:00. Labegarai.

SASKIBALDIA

Hernani - Arrasate
Kadeteak. Zapatuan. 16:30. Hernanin.

ERRUGBIA

Arrasate - Landrus (Lugo)
Seniorrak. Zapatuan. 16:30. Garagartzan.

BESAIDAREN MENDI ASTEA

Diapositiba emanaldiak
Iker Pou. Gaur. 19:00. Monterronen.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Azken jaia
Zapatuan. 12:00. Herriko Plazan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ohor. Gazteak. Mondra-Bergara 4-0

Ohor. Kadete. Arrasate CD-Baskonia 0-6

SASKIBALDIA

Juniorrak. Easo B-Arrasate. 96-44

Arrasate - Loyola. 56-49

ESKUBALDIA

Igoera fasea: Trapaga-AGR Arrasate. 24-16

Kopa: Urrietako-Arrasate. 30-27

Neskak: Arrasate-Zahara Kafetegia. 22-23

Arrasate Kirol Proiektuak azken jaia egingo du bihar, Herriko Plazan

XABIER URZELAI

Ikasturtea amaitzeaz dagoela-eta, Arrasate Kirol Proiektukoek azken jaia egingo dute bihar. Lehenengo Aramaiora egingo dute joan-etorria bizikletan, eta gero ekitaldi nagusia egingo dute Herriko Plazan.

Arrasate Kirol Proiektukoak jo eta su dabilta ikasturte amaiera honetan. Joan den astean 400 neska-mutikorendako 3x3 Saskibaloia Txapelketa antolatzen ibili ziren, eta oraingo asteburuan ere ez dute deskantsurik izango, bihar ikasturteko azken jaia egingo dute-eta.

ARAMAIORA BIZIKLETAN

Ikasturteko azken jaia bizikletan egingo duten txangoarekin hasiko da. Debagoieneko Zikloturista Taldeko lagunak lagun-tzarekin 200 neska-mutiko inguru Aramaiora joango dira bizikletan. Goizeko hamarretan elkartuko dira Iturripen, eta Aramaiora atsedena hartu eta gero Arrasaterako bidea hartuko dute. Bizikletako txangoa Herriko Plazan amaituko da, han izango da eta ekitaldi nagusia. Eguerdian hasiko da ekitaldi hori, eta ikas-



Herriko Plazan hasiko da ekitaldi nagusia, 12:00etan.

turtean zehar egin dituzten txapelketetan irabazle izan diren taldeendako sariak izango dira.

Horrez gain, baina, zozketa ere egingo dute, eta sari mordoak banatuko dituzte AKPk lagunek. Horretarako, komeni da Arrasate Kirol Proiektuko txartela eramatea. Ekitaldi nagusia, baina, ez da hor amaituko, sorpresa asko izango dira-eta ekitaldi horretan.

ONDO AMAITZEKO MODU ONENA

Jai bat eginez amaituko du AKPk ikasturtea, urtero moduan. Eta, egia esan, ez dago urte osoko lana amaitzeko modu hoberik.

Mondragoeko ikastetxeetako neska-mutikoei ehunka kirol egiteko aukera izan dute urtean zehar, eta ikasleek bizikleta gainean esango diote agur aurtengo ikasturteari.

FOTOKIROLA



Gipuzkoako Birako laugarren etapa

Besaide Mendi Taldekoek Gipuzkoako Birako laugarren etapa egingo dute ekainaren 6an. Ibilaldia San Miguel mendate-tik Debaraino egingo dute. Aurreko mendi irteeretan goiz-pasa joan dira, baina datorren asteburuko irteera egun osokoa izango da, zazpi ordu inguru behar dira-eta ibilaldi hori egiteko. Izena eman gura duenak datorren martitzenetik (ekainak 1) eguaztenara arte (ekainak 3) izango du horretarako aukera, Besaideko egoitzan. /X.U.

ASTE BERDEA

ARRASATE EUROPAREKIN INGURUMENAREN ALDE
JASANGARRITASUNAREN BIDEAN



Egitaraua

Mendi irteerak

Maiatzaren 30ean, domeka

• Gaia: sendabelarrak, onddoak...

Arrasate, Elorregi, Bedoña, Udala, Arrasate.

Ordua: 9:00etan, Udaletxearen aurrean.

* Autoak beharko dira.

Gidaria: URTZI MENDIZABAL

Ekainaren 6an, domeka

• Gaia: ekosistema naturalak

Arrasate, Azuela, Andra Mari Zuri, Bedoña, Arrasate.

Ordua: 9:00etan, Anbulatorio aurreko aparkalekuan.

Gidaria: URTZI MENDIZABAL

Umeendako jolasak

Ekainaren 5ean, zapatua

Jolas gunea Seber Altube plazan.

11:00 - 13:00: puzgarriak

16:30 - 19:30: puzgarriak eta jolas birziklatuak

Tailerrak

Ekainaren 2ean, eguaztena

Erosketa ekologikoaren tailerra (kontsumo jasangarria)

Ordua: 16:30etan, Herriko plazan.

* Haur eta helduendako.

Txapak eta marrazkiak egiteko tailerra.

Hitzaldiak

Ekainaren 1ean, martitzena

• Gaia: "Nekazaritza ekologikoa lurra-erakiko txertaketa afektiboaren bidetik".

Ordua: 19:00etan, Monterron Jauregian.

Hizlaria: AGUSTIN LINAZASORO.

ARGI TA GARBiko kidea.

Ekainaren 3ean, eguena

• Gaia: "Jasangarritasunaren argi-ilunak, gaur eta hemen".

Ordua: 19:00etan, Monterron Jauregian.

Hizlaria: IÑAKI ANTIGÜEDAD. EHUko irakaslea.



Epe motzean,
Tytty Thusberg,
diseinugile eta
jostun
finlandiarren jantzi
ekologikoen
erakusketa
izango dugu
gurekin.

E, TXO!

GUREGAIK/ UDALEKUAK

Bertso udalekuak antolatu dituzte 9 eta 10 urte bitarteko umeendako

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN JAIALDIAN LAGUNTZEKO

Topagunearen Gazte Sailak Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntzeko deialdia egin du. Jaialdia uztailaren 2an, 3an eta 4an egingo dute, eta interesatuek AEDra jo beharko dute izena ematera.

Laguntzera joan gura dutenek hiru aukera izango dituzte: ekainaren 28tik uztailaren 4ra muntatze lanak egin eta jaialdian esku hartu; uztailaren 2tik 7ra jaialdian esku hartu eta desmuntatze lanak egin; eta uztailaren 2tik 4ra jaialdian lan egin.

Laguntzaileek ekainaren 4a baino lehen eman beharko dute izena AEDn, eta 23 euro ordaindu beharko dute.

ASTEBURUAN BI KONTZERTU GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Arrasateko Numen eta Bizkaiko Suffering Down taldeek joko dute, 22:30ean. Bihar, Arrasateko 2x6 taldeak kontzertu akustikoa egingo du, 19:00etan.

IKER BARANDIARAN


Txatxilipurdik eta AEDko bertso eskolak, lankidetzan, bertso udalekuak antolatu dituzte. Hala, uztailaren 9 eta 10 urte bitarteko hamabost umek astebeteko egonaldia egingo dute Garaioako Otaza etxean.

Txatxilipurdi elkarteak udaro udaleku sorta handia antolatzen du. Aurten ere, hainbat antolatu ditu: itxiak Beintzan, Orion eta Kantabrian; eta irekiak, Arrasaten, besteak beste. Herriko ume eta gaztetxoek hainbat aukera izango dituzte.

BERTSO ZALETASUNERA HURBILDU

Aurten, Txatxilipurdik eta AEDko bertso eskolak, lankidetzan, bertso udalekuak antolatu dituzte. Lehen Hezkuntzako laugarren mailako hamabost gaztetxok astebeteko egonaldia egingo dute Garaioako Otaza etxean.

Txatxilipurdiko kideen esanetan, egonaldi hori "ez da bertsolaritzaren barnetegi" bat izango. Bertsolaritzaren gaineko joko-



ARTXIBOA

AEDko bertso eskolak eta Txatxilipurdik Arrasaten bertso zaletasuna bultzatu gura dute, Aramaion egiten duten moduan.

ekin eta bestelakoekin, aisialdiko ekintzak uztartuko dituzte. Hala nola, hondartzara irteerak, piraguismoa, gazteluak ikustea, eta beste batzuk.

Helburua da bertso zaletasuna piztea eta bertsolaritza eta euskal kultura ezagutzera ematea, baina horrez gain ondo pasatu gura dute.

Taldea hamabost lagunera mugatuta dago, eta izena emateko epea ekainaren 18an bukatuko da. Interesatuek 150 euro ordaindu beharko dute.



Uarkape 2, behea. ARRASATE.

Tel.: 943 77 20 87

irudisport@telefonica.net

Ordutegia: 07:30 - 21:30

Ezagutu Body Jama gertu-gertutik.

Estreinaldia Arrasateko gaztetxean ekainaren 4an, barikuan, arratsaldeko 7etatik 8etara eta 8etatik 9etara.

Sarrera doan!!!
Zatoz eta proba ezazu!!!



BODY JAM



Goikobalu abesbatzak eta herriko beste elkarte batzuek lan handia egin behar izan dute ikuskizuna prestatzeko.

ARTXIBOA

IKUSKIZUNA/ 'Eskuak elkarri' ikuskizunean ehundik gora arrasatearrek esku hartuko dute

Arrasateren historiaren gaineko antzezlan musikatua

IKER BARANDIARAN

Goikobalu abesbatzak, hainbat talderen laguntzarekin, Arrasateren gaineko ikuskizun erraldoia prestatu du. Ekainaren 11n, 12an eta 13an egingo dute Amaia Udal Antzokian. Lana Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du, eta musika Sabin Salaberriek.

Goikobalu abesbatzak bost urtean behin zorrotz betetzen du idatzita ez dagoen arau bat: ekitaldi berezi bat antolatzea. Abesbatzak hamabost urte bete dituen honetan, orain arte egin duen lan erraldoiena prestatu du. Arrasateko historiaren gaineko antzezlan musikatua, hain zuzen ere.

BENETAKO HISTORIAN OINARRITUTA

Goikobalu abesbatzak antzerkia, dantza, musika eta Arrasateko historia uztartuko zituen ikuskizuna egin gura zuen. Horretarako, lehenik eta behin, Josemari Velez de Mendizabalengana jo zuten. Hark hasieratik proiektuan esku hartzea erabaki zuen, eta antzerki-obra idatzi zuen. Aipatu beharra dago Velez de Mendizabalek gidoi horretan euskaraz ezagutzen diren bertso zaharrenetarikoz batzuk ere sartu dituela, Arrasateko historiarekin lotuta daudenak. Velezek 1149. urtera arte jo du, eta handik gaur egunera arteko gainbe-

giratua egin du. Besteak beste, herriari emandako hiri-gutuna, Bañeztarren eta Gurayatarren arteko ezinikusiak, Ganboatarren eta Oinaztarren arteko borroka odoltsuak eta herriak bizi izan dituen erreketa nagusiak azpimarratu ditu.

ELKARREKIN ARAZOEI AURRE EGIN

Ikuskizunaren izena Velez de Mendizabalek asmatu zuen. Arrasateko 1448ko sutearen ondorioz, Calixto III.a aita santuak bulda bat ezarri zuen, herri kiskaldua berreraikitzeke herritarrei laguntza eskatzen. Buldak hala zioen:

Antzerki-obra Velez de Mendizabalek idatzi du eta Sabin Salaberriak musika konposatu du

Antzerkia, musika, dantza, bertsoak, abesbatza eta bestelakoak uztartuko dituzte

Christifidelium manus adiutrices necessariae. Horretan oinarrituta, Velez de Mendizabalek antzerki-obra *Eskuak elkarri* izena ipini dio, eta horrekin batera hausnarketa egin du 556 urte geroago ere gure gizarteak sufritzen dituen arazoei eskuak elkarri emanda aurre egiteko.

EHUN HERRITAR BAINO GEHIAGO

Eskuak elkarri ikuskizun erraldoia da. Orkestra, aktoreak, abesbatza, txalaparta, bertsoak eta dantza uztartzen ditu. Ikuskizuneko musika Sabin Salaberri aramaioarrak konposatu du, eta Iñaki Maidaganek zuzenduko ditu bai abesbatza eta baita orkestra ere. Antzerki zuzendaritza Mikel Irastortzak eta Itziar Rosadok egin dute, eta Lore Gazteak eta Arrostitak dantza taldeek dantza berriak egin dituzte. Guztira, ehundik gora lagunek esku hartu dute.

Antzezlan musikatuak ordu eta erdi inguruko iraupena izango du eta euskaraz egingo dute. Hiri-gutunaren gaineko testua, berriz, gaztelaraz errezitatuko dute. Antzezlan asko zaindu izan gura dute, eta, esaterako, arropak Teruelgo artisau batek egin ditu.

Emanaldietan ikusleei eskuorriak emango dizkiete, antezlanaren gidoiarekin. Horrez gain, Goikobaluk hirietako antzokiei eskaintza egingo die ikuskizun hori egiteko.

Almodovarren azkena eta Sahararen gaineko film bat

I.B.

Gaur, egubakoitza, *Cuentos de la guerra saharai* filma emango dute zineklubean. Bihar, domekan eta astelehenean, *La mala educación* emango dute. Ekainean ez dute filmik emango.

Gaur, egubakoitza, *Cuentos de la guerra saharai* filma emango dute. 96 minutu irauten du eta Pedro-Perez Rosado valentziarrrak zuzendu du. Legionario gazte batek armadatik desertatu egingo du familia saharar bat erasotu gura ez duelako. Familia horrek ezkututzen lagunduko dio, eta Sahararen inbasioaren lekuko izango da. Gerraren eta inbasioaren ondorioz, legionarioa familia, aberri eta jatorri barik geldituko da.


Protagonista Sergi Calleja da (*Marta y alrededores*, *En la puta calle...*). Harekin batera, Joseba Apaolazak (*La voz de su amo...*) eta hainbat aktore sahararrek lan egiten dute.

'LA MALA EDUCACION'

Domekan, *Peter Pan*, *la gran aventura* filma emango dute, 17:00etan, gaztetxoendako.

Zapatuan, domekan eta astelehenean, *La mala educación* filma emango dute. 120 minutu irauten du eta Pedro Almodovarrek zuzendu du. Drama horretan, haurtzaroan batera ibilitako bi gaztek elkar ikusiko dute, eta eskola katoliko baten bizi izandako garai gazi-gozoak gogoratu dituzte.

Protagonistak Gael Garcia Bernal, Fele Martinez eta Javier Camara aktore ezagunak dira.



Zubizarretak fotomuntatze lana aurkeztu du.

Gorka Zubizarreta da San Juanetako irudiaren egilea

I.B.

Gorka Zubizarreta arrasatearra izan da San Juanetako irudia aukeratzeko lehiaketaren irabazlea. 27 lan aurkeztu dituzte guztira, eta Gorka Zubizarretak eskuratu du 750 euroko saria.

Dagoeneko erabaki dute zein izango den 2004ko San Juanetako egitarauaren irudia. Gorka Zubizarreta diseinugile arrasatearra eskuratu du 750 euroko saria. Orain dela pare bat urte, Zubizarretak berak irabazi zuen Gazte Kontseiluko logotipo lehiaketa, eta horrez gain, besteak beste, Arrasateko gaztetxeo hainbat

lan ere berak egin ditu. Beraz, sasoian dago Zubizarreta.

27 LAN AURKEZTU DITUZTE

Udaleko Kultura Sailak aditzera eman duenez, aspaldian baino lan gehiago aurkeztu dituzte lehiaketa horretara. 27 lan batu dituzte; horietatik, 12 umeenak eta 15 gainontzekoenak. Lanek maila ona dutela argitu digute. Nagusiek aurkeztu dituzten laneetatik, guztiak bat izan ezik orde-nagailuz eginak daude.

Zubizarretak fotomuntatze bat egin du, eta bertan, argazki bat eta marrazkiak batu ditu. Zubizarretak egindako irudia etxez etxe banatuko diren 9.000 egitarauetan agertuko da.

ELKARRIZKETA

NUMEN/MUSIKA TALDEA

“Diskotik diskora, geroago eta musika eta hitz gogorragoak egiten ditugu”

IKER BARANDIARAN

Numen musika taldeak hirugarren lana kaleratu du, eta gaur, egubakoitza, aurkeztuko du Arrasateko gaztetxean. Izan ere, Arrasateko talde horrek izen handia dauka black-death-metal musika taldeen artean.

Kontaiguzue noiz sortu zen Numen taldea eta zein ibilbide egin duen.

Numen 1997an sortu zen. Hasieran bost lagun ginen: Navarra, abeslaria; Jabo eta Unai, gitarra jotzaileak; Lander, baxua; eta Josu, bateria jotzailea. Honako lanak kaleratu ditugu: *Haize sorginduen intzirriak* maketa; *Gal dutako itxaropenaren eresia* diskoa; eta *Jarrai beza kondairak* mini-CDa. Azken hori maketaren berrargitalpena da, lau kantu berrirekin.

Erratuta ez banabil, taldean partaide aldaketak egon dira, ezta?

Bai, hasi eta urte batzuetara Josuk taldea utzi zuen, eta *Largo-k* ordezkatu zuen. Orain dela gutxi, Karlosek *Largo* ordezkatu du. Urtetan Aimar teklatuak jotzen ibili da, baina orain dela gutxi atzerrira joan da ikastera, eta Patxi sartu da. Horrez gain, orain dela pare bat urte Josu baxua jotzen hasi zen, Landerren partez. Hala ere, taldekide izandako gehienek tarteka laguntzen jarraitzen dute.

Orain Basoaren semeak izeneko diskoa grabatu duzue.

Bai, aurreko lanen moduan honako hau ere Shot! estudioan grabatu dugu, eta oso gustura gelditu gara emaitzarekin. Inaki Bengoak egin ditu teknikari lanak, eta Sociedad Alkoholikako Jimmyk ekoitzi du. Oraingoan ere Beasaingo Goimusic diskoetxeak kaleratu du diskoa. Pozik gaude Goimusic-ekin, diskoak ondo banatzen ditu eta oso lan ona egiten du. Bederatzi kantu ditu, denak gureak eta euskaraz.

Zeinek egiten ditu hitzak?

Orain arte beti Landerrek egin ditu, baina lan honetan, Landerrek, Amaiak eta hirurok egin ditugu. Gehienetan euskal mitologiaren eta antzinako ohituren gainean abesten dugu. Hala ere, disko honetan ez dira hain poetikoak, basatiagoak dira, amorrerri handiagoa dute: kristautasunari aurka egiten diogu, euskal kulturari min handia egin ziolako.

Musikari dagokionez, aurreko lanekin konparatuz disko honetan alde handia dago?

Disko honetako abestiak gogorragoak dira, baina black-death-



NUMEN

“Abestietan kristautasunari aurka egiten diogu, euskal kulturari min egin ziolako”

metal musika egiten jarraitzen dugu. Taldekideak aldatu ditugu eta eragin berriak ditugu. Talde askok musika lasaiagoa egiteko joera izaten dute. Guk, berriz, alderantzizko joera dugu, bai musikari eta baita hitzei dago kienez ere. Hau irteten zaigu.

Zer moduz joan da orain arteko diskoen salmenta?

Pozik gaude. Maketaren mila kopiak berehala agortu ziren; lehenengo diskotik 3.000 saldu genituen; eta azkeneko mini-CDaren gaineko datu zehatzik ez daukagu oraindik. Dagoeneko 1.500 saldu ditugu.

Gaur, Arrasaten aurkeztuko duzue diskoa...

Bai, aurkezpen-kontzertua hemen, Arrasaten, izango da.

“Vigon, kontzertu batzuetan, ikusleak gure kantuak euskaraz abesten ikusi ditugu”

Hala ere, dagoeneko diskoko kantu batzuk zuzenean jo izan ditugu, ikusleek zelan hartzen dituzten jakiteko: Vigon, Tarragonan, Zaragozan... Oso harrera ona izan dugu, eta Vigon, esaterako, 200 bat lagun batu genituen. Zoritzarrez, Arrasateko kontzertua egin ostean, atsedenditxo bat egin behar dugu, taldekide batzuek azterketak dituztelako. Horren ostean, kontzertuak egiten jarraituko dugu.

Estatuan hemen baino ikusle gehiago dituzue?

Hemen ere baditugu, baina esaterako oso bitxia da Vigon, kontzertu batzuetan, ikusleek gure kantuak euskaraz abesten ikustea. Leku gehienetan oso ondo hartzen gaituzte.



ARRASATE PRESS

Arrasate, arrasatearrak eta hemengo bizimodua argazkitan batu zituzten.

‘Arrasate Iruditan’ liburuaren berrargitalpena, San Juanetan

I.B.

Arrasate Argita Kulturak Elkarteak *Arrasate Iruditan* argazki liburuaren bigarren edizioa aterako du San Juanetarako. Aurreko edizioa agortu egin zen, eta beste 2.000 liburu argitaratuko dituzte.


Arrasate Argita Kulturak Elkarteak iazko irailean kaleratu zuen *Arrasate Iruditan* liburuaren lehenengo edizioa. Zeresan handia eman zuen liburu mardul eta ikusgarri horrek. Herriaren gaineko argazki bitxi asko batu zituzten, eta idazle eta kazetari eza-gunek hitzaurreak egin zizkieten. 3.500 ale kaleratu zituzten. Herriko enpresek, elkarteek eta Arrasateko Udalak berak liburu mor-

doa erosi zituzten. Horren ostean, erakundeek, elkarteek eta industriek kanpoko bisitak izan dituztenean, askotan liburu hori oparitu egin dute.

OÑATIREN GAINKO LIBURUA

Orain, berriz, lehenengo edizioaren arrakasta ikusita, bigarren edizioa prestatzen dabilta. San Juanetarako kaleratzeko asmoa dute, eta beste 2.000 liburu ipiniko dituzte saltzeko. Horietatik 800 herriko zenbait enpresak erosi dituzte dagoeneko.

Oñatin ere argazki liburu prestatzen dabilta. Azaroan hasi ziren Oñatiren gaineko argazkiak egiten, eta 2005eko apirilerako edo maiatzerako argitaratu gura dute. 2.000 liburu kaleratu gura dituzte.



40 margolariren lanak, Harresi aretoan

Monterongo tailerrean esku hartzen duten berrogei bat arrasatearrek erakusketa ipini dute Harresi aretoan. Joan den egubakoitzean, maiatzaren 21ean, zabaldu zuten, eta astelehenera arte (maiatzak 31) ikusgai egongo da. 50 bat lan batu dituzte, gehienak olioak. Horietako asko paisaiak dira, baina badira erretratuak, natura hilak eta bestelakoak. //B.

BEHEKODENDATIK

Xabier Lasagabaster

LASAGABASTER DENDA

XABIER URZELAI

Xabierrek Bilbon ikesi euen marketiña, eta ikasketak bukatu eta dendan hasi zan lanien, oin dala bost urte. Lasagabasterera jueten bazarie ez dozue mostadorien ikusiko, ofiziñan egoten da-eta, dendako kontuek erueten. Hamar anai-arreba eta zapi dendan lanien, ez da marka txarra.

Ze falta jako Mondragueri?

Bizittasun apur bat, jentie aste bukaeran herrixen geraketako motiboren bat. Juen dan astien Erdi Aroko azokie egon zan, eta interesantie pentsau jaten.

Eta, ze dauko ona?

Mondraguen ondiokan be herri girue dauela.

Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Lana.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

En el nombre de la rosa / Ez dot liburu askorik leiduten / Des-Kontrol.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Oin? Eguzkixe egitten dauen lekuren batera, hondartzara, baiñu bat hartzera... Karibe aldien, ondo.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Españako Gobernuekin.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Pazientzia.

Denbora librien ze egitten dozu?

Deportie egitten dot eta lagunekin egoten naz.


Kapritxo bat.

Ez dakit ba. Munduari bueltie emutie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Lekeitio.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PResSen?



X.U.

“Neuk moda asuntuek ez dittut askorik kontroletan, kontabilidade lanak egitten dittut”

Realak ligie irebazi dauela. Lasagabaster geruau eta haundixaue.

Bai. Aittekin ipiñi euen dendie martxan, eta ordutik hona dezentte haunditxu da. Anai-arreba askok egitten dogunez lan, azkenien derri gor haunditxu biher.

Diseño eta moda kontuetan egitten dozue lan, baiñe esan dustie zeuri holakorik ez preuntetako.

Ez, moda kontuen gutxi dauket esateko. Neu numero artien ibiltten naz, kontabilidade lanak egitten. Moda kontue dendan dauzenek kontroletan daue.

Badau motiborik jentie konprak egittera kanpora jueteko?

“Negozio baten gauza inportantienetako bat da saldu biher dozun horretan asmaketie”

Ez dot uste. Kontue da jentie kanpora jueten bada ez dala konprak egittera jueten bakarrik. Azken baten, egun pasa jueten die kanpora, eta zerbait erosteko aprobetxetan daue.

Arropak, etxe apainketak, altzarixek... Lasagabasterren hurrengo erronkie?

(Barriek) Ez dakit zer egingo dogun, baiñe dagueko hasi gare beste gauza batzuetan pentsetan. Azken baten, hori da holako negozio baten egin biher dan gauza inportantienetako bat, saldu biher dozun horretan asmaketie. Egun, gauza diferentiek saltzen dittugu, eta aurrera begira be hasi biher gare gauza barrixetan pentsetan.

NIREBIDAIAHURA/ Ortzi Pildain

Finlandiara eta Estoniara / 2004ko martxoan

Egubakoitz gauean Helsinkiko diskoteketan utzi genituen Ortzi eta lagunak. Zapatuan, Finlandiako lagunak uharte batean daukan etxetxora joan ziren asteburua pasatzera: “Itsasoa izoztuta zegoenez, uharteraino autoz joan ginen. Kontu handiz joan ginen, izotz gogorraren gainetik joan behar genuelako. Apur bat desbideratuz gero, arriskua zegoen uretara erortzeko”. Hori dela-eta, gerrikoak lotu barik egin zuten bidaia: “Han gomendatzen dute izotz gainean bidaiatzerakoan gerrikoa ez lotzeko, uretara jausiz gero automobiletik errazago ateratzeko”. Uhartera iritsi eta goiz partean iraupen eskia egin zuten. Arratsaldean, berriz, kanberak hartu eta arrantzan egitera abiatu ziren: “Leretan egin genuen osteratxo, eta arrantzan egiteko leku aproposa aukeratu eta gero, lasai eseri eta gauean zer afaldu izateko lanean hasi ginen. Egia esan, oso erraz zulatu genuen izotza, horretarako erreminta berezia daukate-eta han. Eta, guztiok arrantzatu genuen arrainen bat edo beste. Hasieran, izokinen begiak jarri genituen karnata moduan, baina zizareek emaitza hobek eman zituzten”.



“Askotan jan genuen izokina, modu askotan prestatuta”

Afaldu aurretik Finlandian ohitura den moduan, baina hartu zuten, kanpoan, baina: “Ordu erdi egon ginen saunan, eta gorputzak bero-bero zeudenean saunatik korrika irten eta, izotz artean eginda zeukaten zulo bat aprobetxatuta, Finlandiako uretan murgildu ginen. Egia esan, ez genuen askorik pentsatu, eta eskerrak horni”. Eta saunaren ostean afaltzera: “Guk arrantzatutako izokinak ketuta jan genituen. Izokina askotan jan genuen Finlandian egin genuen egonaldian, baina esan beharra dago modu askotan prestatuta jan genuela, eta denak zirela ederrak”. Hurrengo egunean elurretako motoetan uhartea hobeto ezagutu eta itzulerako bidea hartu zuten, astelehenean zeukaten-eta Lovainarako (Belgika) hegaldia. Ondo aprobetxatutako astea, Finlandiako lurretan.

XABIER URZELAI



Izotzetan zuloa eginda izokinak arrantzatu ahal izan zituzten.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETAK

ZAHARRETXETIK

Uribarriko erretiratuen eskulan mordoa erakusgai izan dituzte elkartean astean

IKER BARANDIARAN

Uribarriko erretiratuen elkartean hainbat eskulan egiten dituzte astero. Aspalditik dabilta horretan, eta joan den egubakoitzetik atzora arte erakusketa egin dute, ikasturtean egin dituzten eskulanak erakusteko. Horretarako, Uribarriko elkarteko bazkideek erabiltzen duten geletako bat atondu eta ederto apaindu zuten.

Are gehiago, atzo, eguena, ibarreko erretiratuek batzarra egin zuten Uribarrin, eta erakusketa hori ikusteko aukera izan zuten. Izan ere, ikusi zuten azkenak izan ziren, dagoeneko itxi dutelako.

IA EGUNERO, ESKULANAK

Aste barruan, Uribarriko erretiratuek ia egunero egiten dituzte eskulanak. Astelehenero, ehozi-rien eskola egiten dute, 15:00etatik 17:00etara. Idoia Ibañez da horren irakaslea eta zortzi bat lagunek esku hartzen dute. Hainbat ehoziri ipini zituzten erakusketan.

Martitzenero, hamabi bat lagun puntua, bainiak eta kakorrazak egiteko batzen dira, 15:00etatik 17:00etara. Asun Mendizabal da horien irakaslea. Lagun horiek xalak, lepokoak, umeen jertseak eta bestelakoak ipini zituzten erakusketan.

Eguaztenetan, olio-pintura ikastaroa egiten dute, 15:00etatik 17:00etara. Hamar bat lagun batzen dira eta irakaslea Marivi Barreno da. Horiek ere euren lanetako batzuk erakusgai ipini zituzten: besteak beste, paisaiak, natura hila, biluziak, eta abar...

Eguenetan ez dute ikastarorik egiten. Egubakoitzetan, berriz, bai. Ines Murillok eskulanen ikastaroa ematen du, eta hainbat lagunek esku hartzen dute. Ikasle horiek ere hainbat lan egin izan dituzte: erretiluak, euritako-ontziak, lanparak, pitxerrak, platerak, oinetako altzariak...

Lan horiek guztiak batuta erakusketarako egokitutako gela guztia bete egin zuten. Hala ere, ikastaro horien arduradunen esane-



Argazkian, puntuko ikastaroan esku hartzen duten ikasleetako batzuk eta Asun Mendizabal irakaslea.

Astean lau egunean egiten dituzte eskulan ikastaroak: ehoziriak, olio-pintura...

Eskulanen ikasturtea irailean hasi eta San Juanak aurretik bukatuko da

Eskulan ikastaroetan esku hartu duten guztiak emakumezkoak izan dira

tan, ikastaroan esku hartzen duten lagunek ez dituzte lanetako asko erakusketara eramane. "Askoz gauza gehiago egin dituzte, eta oso politik gainera", azpimarratu zuten.

Aipatu beharra dago ikastaro horietan dabiltzan lagun guztiak emakumezkoak direla. Gizonezkoek ez dute esku hartu. Aurtengo ikasturtea bukatzeaz dago, San Juanak arte iraungo du-eta. Datorren ikasturtean izena eman

gura duenak iraile erdialderako eman beharko du izena Uribarri elkarteko bulegoan. Gizonezkoek ere gonbita egiten diete, jakina.

ERAKUSKETAK, HARRERA ONA

Ikastaroen arduradunen esanetan, bigarren aldia da aspaldian Uribarriko elkartean halako erakusketa bat egiten dutena, eta oso harrera ona izan du. Erakusketara, egunero, auzoko hainbat lagun joan dira, eta gehienek

gustuko izan dituzte erretiratuek egindako lanak. Erretiratuak eurak ere pozik daude, are gehiago ikastaroetako irakasleak. "Azken baten, ikastaroan edo etxean egiten ditugun lanak jendaurrean erakusteko modu bat da. Eta horren bitartez, beste erretiratu batzuei erakusten diegu eurek ere aisialdian eskulan politik egin ditzaketela", azpimarratu zuen Uribarri elkarteko lagun batek.

LABUR

Bihar, zapatua, erretiratuen bazkaria Musakolan

Bihar, zapatua, SUDCek erretiratuen bazkaria egingo du Musakolako kiroldegian. 12:00etan meza egingo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, autobusak ipiniko dituzte Garibaitik. Bazkaria 14:30ean izango da, eta bertan, sariak banatu eta dantzaldia egingo dute.

Gimnasia ikastaroko ordutegia aldatuko dute Abaroan

Abaroa erretiratuen elkarteak aditzera eman du ekainean gimnasia ikastaroko ordutegia aldatu beharra daukela. Izan ere, orain arte moduan, ikastaro hori 10:30etik 11:30era egin beharrean, ekainean 09:30etik 10:30era egingo dute. Informazio gehiago, bulegoan.

1950eko kintoek urteroko bilkura egingo dute

1950eko kintoek urteroko bilkura egingo dute ekainaren 12an. 12:30ean meza egingo dute San Frantzisko elizan. Horren ostean, txikiteoa. Eta 14:30ean, bazkaria, Musakola Hostalean. Ekainaren 8a aurretik honako lagunetako bati deitu: 943 79 01 07 (Roberto) edo 943 79 13 51 (Jose Luis).

Lehen sorospenen gaineko berbaldia, Uribarrin

Ekainaren 10ean, lehen sorospenen gaineko berbaldia egingo dute Uribarriko erretiratuen elkartean. Kutxak antolatu du, eta Gipuzkoako Erizainen Eskolako Maite Valin izango da hizlaria. 17:00etan izango da, eta edozein ezbeharren aurrean zela jokatua behar den azalduko dute.

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizenziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Gorka
ileapaindegia
peluqueria

Ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

ESKORIATZA
ERRETEGIA

Tfn 714345

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA



ARRASATE
Terete Bedia
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Iria
Maiatzaren 26an, 6 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Mari Jose Carmona
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mikel Gonzalez
Maiatzaren 28an, 12 urte. Zorionak! Aita, ama eta arreba.



ARRASATE
Maddi Lakunza
Maiatzaren 23an, 13 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Ainhoa Bolinaga
Maiatzaren 29an, 5 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Soraya Alvarez
Maiatzaren 23an, 23 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Pauli Palacios
Maiatzaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Natali Martinez
Maiatzaren 28an, 30 urte. Zorionak, Wood! Goienako lankideak.



ARRASATE
Iratxe Diez
Maiatzaren 28an, 31 urte. Zorionak, Ira! Zure koadrilakoak.



ARRASATE
Ander Belategi
Ekainaren 1ean, 26 urte. Zorionak! Termitak.



ARRASATE
Jon Ruiz de Azua
Maiatzaren 22an, 12 urte. Zorionak! Familiakoien partetik.



ARRASATE
Mari Lourdes Bolinaga
Maiatzaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Mainer Saldaña
Maiatzaren 25ean, 20 urte. Zorionak! Los angeles de Charlie.



ARRASATE
Markel Irazu
Maiatzaren 28an, 13 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Ion Arizmendi
Maiatzaren 30ean, 14 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Jose Manuel Corcuera
Maiatzaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Iloben partetik.



ARRASATE
Koro Abetxuko
Maiatzaren 28an, urtebetetzea. Zorionak! familiaren partetik.



ARRASATE
Izaro Uribarren
Maiatzaren 29an, 7 urte. Zorionak, eta ondo pasatu eguna! Etxekoak.




ARRASATE
Monica Lagullon
Maiatzaren 25ean, 23 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Aitor Uribetxebarria
Maiatzaren 27an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak, Nerea eta Ander.



ARRASATE
Miguel Angel Gonzalez
Maiatzaren 25ean, 36 urte. Zorionak! Ainhoaren partetik.



ARRASATE
Martxel Aranzadi
Maiatzaren 22an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maximo Uribesalgo
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Eider Etxebarria
Maiatzaren 27an, 10 urte. Zorionak! Zelaixotarren partetik.



ARRASATE
Iñigo Arizmendiarieta
Maiatzaren 28an, 6 urte. Zorionak! Aita, ama eta Aritz.



ARRASATE
Aitor Iraeta
Maiatzaren 24an, 7 urte. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
June Rodriguez
Maiatzaren 30ean, 5 urte. Zorionak! Aita, ama eta etxeokak.



ARRASATE
Ander Otero
Maiatzaren 24an, 3 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.

Adi!
Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
**Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

**Zorion agurrak,
SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zer dela eta egin zituzten orain dela gutxi Batzar Nagusiak Arrasaten?
Arrastoa: besteak beste, orogarria ipini zuten udaletxean.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Mendisol ekilore-olioa
Litro bat

0,79 € 131 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

TERESA GOMEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Teresa!
Galderen erantzun zuzena:
San Juan de Dios ospitalea.

ARRASATEKO HISTORIA

Joan den mende hasierako eskola kontuak

'GAIZKA BARANDIARAN...' / VELEZ DE...

Futbol kontuak albo batera utzi, eta oraingo honetan sasoi bateko eskola kontuak izango ditugu berbagai. Aurreko mende hasierako joko dugu horretarako.

Honako eskolak zeuden Arrasaten sasoi hartan: udal eskola, Portillorena, Aranorena, *Eskola Txikia* eta Zarugaldekoa. Izenak esaten duen moduan, udal eskola udaletxean zegoen. Besteak beste, Francisco Urrutia izan zen hango irakaslea, 1918an irabazi zuen Arrasateko udal eskolaren kargua, eta 1934ra arte lan egin zuen han, hain zuzen ere, Gazteluondoko eskola berriak inauguratu arte. Bestelako biei dago kienez, Aranorena oso ezaguna egin zen.

Felix Arano aguraindarrak Viteri Fundazioaren ikastegian ziharduen Arrasaten 1902a ezker, eta ospetsu egin ziren haren ikas metodoak. Historiarako geratu dira Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresuan—Iruñea, 1920—Aranok egindako erakustaldiak, Arrasateko hiru ikaslerekin, buru kalkulua zela eta. Aranok, liberala bere pentsamoldean, herriko jauntxoan—Toribio Agirre, Higinio Resusta, Rikardo Azkoaga eta



'GAIZKA BARANDIARAN, BERE BIZITZA ETA LANAK'

Argazkian, Biteri Eskolak; Felix Aranoren ardurapean egon ziren, eta haren ikas metodoak ezagunak egin ziren.

abar— mesedeak irabazi zituen. Urrutiaren eskolara, berriz, Centro Catolicotik hurbilenetakoak joaten ziren. Lucio Portillo zen irakaslea, Ciudad Realen jaiotakoa. Eta eskola, Seber Altuben zegoen, sasoi baten haurtzaindegia egon zen leku berean. Herriko irakas-

Oro har, hiru eskola zeuden Arrasaten: udal eskola, Aranorena eta Portillorena

leen artean politikak gutxien kutsatu zuena da. Baina, hala eta guztiz ere, askok gogoratzen dute oraindik Portilloren jarrera ez eredugarri bat: ohitura zen hileko lehenengo ostiraletan 07:30erako mezatarazazaltzea eta jaunartzea egitea; Portillo maisua eta

bere seme-alabak, Socrates, Lucas, Amador eta Julia, inor baino lehenago azaltzen ziren aldarera. 1931n Errepublikak ezarri eta berehala Portillo izan zen eskoletako hormetatik kristau-gurutzeak kendu zituen lehena, inongo agindu ofizialik gabe.

Aipatutakoez gain, sasoi hartan Arrasaten izan zen beste eskola pare bat ere. Lehenengoa Erdiko kalean zegoen, eta *Eskola Txikia* esaten zioten. Geroago, urtetan epaitegia egon zen tokian egon zen eta handik udaletxera pasatu zen. Bestea denboraldi labur batez Zarugaldean izan zen, Lucio Portilloren seme baten ardurapean, Juanito Etxeberriaren laguntzarekin.

Urrutiak laurogeita hamar bat ikasle zituen bi txandatan, 08:30etik 10:00ak arte batzuk eta 10:30etik 12:00ak arte besteak. Arratsaldean, berriz, 14:00etatik 15:30ak arte eta 16:00etatik 17:30ak arte. Bi hizkuntzak erabiltzen ziren, ume gehienek gaztelarekin zailtasunak zituzten-eta. Aranoren eskolan edo Portillonerean onartzen ez zen elebitasuneko sistema apurra ontzat ematen zen Urrutiarenean. Edozein modutan, batzuek Urrutiaren makila da garai haietatik gogoratzen duten elementurik biziena.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko maiatzaren 28a / 110. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Santikurtz Eguna izango da datorren domekan

UBANE MADERA

Ekaineko aurreneko astebururekin batera Santikurtz Eguna ospatzeko eguna iritsi da. Antolatzaileek ipini duten baldintza bakarra da oinez igo beharra dagoela.

Ekainaren 6an, domeka, ospatuko dute Arangioko Atxetan dagoen Santikurtz ermitako jaiak. 12:00etan da hitzordua, ermitan bertan. Hala, lehenengo meza santua esango dute, eguerdian, eta horren ostean salda eta txorizoa banatuko dute Santikurtzera doazen artean. Horren ostean, erromeria izango da, herriko trikitilariak girotuta. Eta eguraldiak lagunduz gero, askok arratsaldea ere aprobetxatuko dute Santikurtzen gelditzeko.

OINEZ IGOTZEA, DERRIGORREZKOA

Arexolako eta Arriolako gazteak antolatu du Santikurtz Eguna. Edozeinek parte har dezake egun horretan, baina baldintza



ORIXOL MENDI ELKARTEA

Besteak beste, salda eta txorizoa banatuko dute Santikurtzera doazen artean.

bat ipini dute antolatzaileek: automobila San Kristobalen lagatzea eta oinez igotzea. Diote asko jota ordubeteko bidea dagoela Santikurtzeraino eta ez

dela zaila bidea oinez egitea; hori bai, eguzkiak jotzen badu txapela eramatea gomendatzen dute, bideko pinuak moztuta daude-eta.

Itxura berritua du Barajuengo elizak

Barajuengo eliza orain dela gutxi berritu dutela jakinarazi digu Barajuengo auzo-alkateak. Besteak beste, margotu egin dute eliza, elektrizitate kontuak konpondu egin dituzte eta bestelako konponketa txikiak ere egin dituzte. Elektrizitate kontuetan, besteak beste, elizako eta erretaulako argiztapena berritu egin dute. Eta lan txikien artean, adibidez, korura igotzeko balastradaren egurra konpondu egin dute eta lurrari berniz modukoa eman diote. Gainera, parrokoak kontatu digu asmoa dela aurrera begira, besteak beste, elizpea margotzea. Jakinarazi digunez, auzolan handia egin dute elizari itxura berria emateko. Dirua auzokoen eta Elizaren artean ipini dute. /U.M.

Oraindik ez da inor azaldu Bañeraz arduratzeko

UBANE MADERA

Bañera elkarteok jakinarazi digute oraindik ez dela inor azaldu Bañera elkarteaz arduratzeko asmoarekin. Gogoratu beharra dago maiatzaren 31 ipini zutela izena emateko epe muga moduan. Edozelan ere, herritar batzuek interesa erakutsi dutela esan digute.

Bañera elkarteok taldeek bukatu dute aurtengo denboraldia. Neskek joan den asteburuan bukatu zuten, eta mutilek bihar partiduarekin bukatuko dute liga txapelketa; Diocesanas Nieves Cano taldearen kontra jokatuko dute, 11:00etan, Aramaion. Aurreko partiduaren gainean, berriz, binako berdinketa lortu zuten Bañerako mutilek Kanpezuko Santa Cruz taldearen kontra. Eta esan beharra dago bihar partidua galdu arren, mutilek taldeak kadete mailako aurreneko postua irabazi duela aurtengo jardunaldian; gainera, bigarrenari hamar puntu baino gehia-

goko aldea atera diote. Neskek, berriz, bosgarren postua eskuratu dute.

AGUR BAZKARIA

Hala, denboraldia bukatu dela-eta, bazkaria egingo dute bihar Bañera elkarteok jokalariek, entrenatzaileek eta zuzendaritzako taldeak. 20 bat lagun elkartuko dira Dukiena jatetxean. Gainera, denboraldiko ohiko agur bazkaria baino gehiago izango da bihar; izan ere, orain arte Bañera elkartearen zuzendaritzaz arduratu direnek, Josu Bideburu eta Alfonso del Campok, orain arteko jarduna utzi egingo dute.

Horrekin lotuta, esan beharra dago oraindik inork ez duela izenik eman Bañera elkarteaz arduratzeko. Zenbait herritarrek interesa azaldu dutela esan digute, baina oraindik ez dutela ardurarik hartu. Zuzendaritzak maiatzaren 31ra arteko epe muga ezarri zuen arduradun talde berria sortzeko. Hortaz, Bañera elkarteak desagertzeko zorian segitzen du. Ea, bada, datorren astean albiste hoberik ekartzerik dugun.

Zuiako Koadrilako Emakumeen Topaketak

U.M.

Gaur bukatu da Zuiako Koadrilako Emakumeen Topaketarako izena emateko epea. Datorren ekainaren 11n ospatuko dute aurtengo jaiak. Murgian izango da, 16:00etan hasi eta 20:30ak arte. Ekimenaren helburua Zuiako Koadrilako emakumeen arteko harremana bultzatzea da.

Iaz Aramaion egin zituzten Zuiako Koadrilako Emakumeen Topaketak. Emakume mordoak joan ziren Aramaiora. Normalean, halako topaketetan inguruko herrietako emakume dezentek parte hartzeko ohitura du, euren arteko harremanak sakontzen laguntzen dielako.

Aurten, Murgian ospatuko dituzte topaketak. Dagoeneko

zehaztu dute jaiko egitaraua, bestelako urteetan egiten dutenaren antzerakoa. Aurtengo jardunaldiari *Emakumeak etorkizunerantz begira* izena ipini diote.

ILUNTZERA ARTE

Arratsaldean hasiko da jaiak, 16:00etan. Aramaiotik 15:00etan aterako da autobusa, eskolatik. Hala, Murgiara iristen direnean, ongiatorria egingo diete emakume guztiei eta horren ostean, besteak beste, mahai-ingurua izango dute. Emakumeek egingo dute. Emakumeek egingo dute. Gero, Panico Esceñico Antzerkia taldeak *Solas* antzezlanaren eszenaratuko du. Kafea hartuko dute antzerkiaren ostean, bide batez tertulia ere egingo dute, eta horren ostean amaiera emango diote aurtengo jardunaldiari, 20:30ak inguruan.



Antolatzaileak pozik daude esaera zaharren bertso lehiaketarekin

UBANE MADERA

Balorazio ona egin dute Txirritola Euskara Elkartekoek esaera zaharren bertso lehiaketaren gainean. Eta esan digute dagoeneko datorren urtekoan pentsatzen dabiltzala, eta bigarren hori aurtengoa baino hobeto aterako den esperantza dutela.

Izan ere, berritasun handia izan da esaera zaharren bertso lehiaketa. Horren ondorioz, besteak beste, bati baino gehiagori zaila egin zitzaion esaera egokia aukeratzea, ehun esaerarekin osatutako zerrenda batetik aukeratu behar izan zuten. Bi taldetan banatu ziren lehiakideak: gazteak eta beteranoak. Azkenean, beteranoek gazteei aurre hartzea lortu zuten, hori bai, alde txikiarekin.

DATORREN URTEAN, HOBETO

Antolatzaileek kontatu diguteenez, 15 bat lagunek ekin zioten lehiaketari, baina, bukaera aldera, lagun gehiagok bat egin zuten



AITOR LIZARRALDE

Datorren urtean berriro antolatuko du ekimena Txirritola Euskara Elkartek, baina Aramaioko esaera zaharrekin.

lehiakideekin. Oro har, oso ekimen alai eta polita izan dela uste dute Txirritola Euskara Elkartekoek, eta dagoeneko erabaki dute

datorren urtean lehiaketa berriro egitea. Hori bai, aurtengo esperientziak lagunduta, datorren urtekoa hobeto egingo duten espe-

rantza dute. Besteak beste, ideia bertara egokitu eta Aramaioko esaera zaharrak erabiltzea da euren asmoa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskuadrea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUS ORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan, Wolfgang Beckerren *Good bye, Lenin* filma emango dute. Komunismoaren gainbeheraren gaineko komedia da, sari asko dituen filma.

DOMEKAKO ZINEMA

Spy Kids II filma emango dute. Abenturazkoa da, umeendako, apur bat fantastikoa. Bestalde, gogoratu beharra dago oraingo film hori izango dela azkena. Ohiturari jarraituz, ekainean ez dute filmik emango. Eta, berez, uztailean udako zinema ematen hasi beharko lukete. Baina oraindik ez da segurua udako zinema egongo denik. Zerbitzu hori eta herriko beste lan batzuk egiten dituen enpresari bukatu egin zaio eta kontratua. Orain, lan horiek egiteko deialdi publikoa deitu du Udalak; hortaz, ez dago esaterik zein jarraipen izango duen udako zinemak.

BERTSO SAIOA

Kanpezun jardungo du gaur, barikua, Manex Agirrek beste bost bertsolariarekin batera. 22:00etan hasiko da afaria, kultura etxean.

BOTEPRONTOAN/ Lourdes Gardoki · Barajuengo auzo alkatea

“Egundokoa litzateke Udalak Torralde mendiko pinudia erosi eta han parke bat egingo balu”

Auzo alkate berriak ditugu herrian joan den iraila ezkerro. Hala, gutxitan bada ere, zerbaitetan Aramaioko auzoei protagonismo apurtxo bat ematearren, asmoa da auzo alkate guztiak egotea eta bide batez auzoaren berri izatea. Oraingo honetan, Barajuenera jo dugu, Lourdes Gardoki da hango auzo alkatea:

Nongoa zara, Lourdes?

Barajuen auzoko Erdaide baserrikoa; bertan jaiotakoa, hain zuzen ere.

Auzo alkate zaren lehenengo aldia da?

Bai, iraila ezkerro naiz alkate. Uste dut lau urterako dela.

Barajuenen alkatea aukeratu egiten duzue?

Bai, boto-paperak elkartera eramaten dira, eta gehien lortu dituenak irabazten du.

Herriko alkatea emakumea dela eta auzokoa ere bai...?

Horregatik izan zen, bai. Guk berarekin berba egiteko eta gauzak eskatzeko konfiantza handiagoa dugula eta esan zuten auzotarrek andre bati emango ziotela botoa (barreak).

Honezker auzoko beharren berri-eta izango duzue...

Hemen garrantzitsuenak eginda daude: ura, saneamendua... Baina nire ustez badago arazo



“Gure artean ondo konpontzen gara; eta etorri diren auzokide berriein ere ondo konpontzen gara”

bat: argia. Iluminazio handiagoa behar du auzoak. Toki batzuetan falta egiten dute kale-argiek. Hori Udalarri eskatu genion, eta Foru Planean sartuta dago, espero dugu auzorako hiruzpatalu kale-argi ematea. Eta horrez gainera, garrantzitsua da baita ere Bentamotz baserriarendako edateko ura sartzea. Hori ere Foru Planean dago sartuta, eta espero dugu hori ere emango dutela. Eta bestela, ez dago gauza askorik; obra txikitxoak daude: iturri bat konpondu, elizara igotzeko hesi bat ipini (hori dagoeneko ekarrira dute), kanposantuko barruko atea konpondu (hori ere egiteko dago)... Eta gero bide bazterrak garbitzea falta da, baina hori auzo lanean egin behar dugu. Diputazioa aurreneko baserri-raino iristen da eta gainerako zatia Udalak egiten du, baina

“Iparralde taberna pareko paretan hesia ipintzea falta da, arriskutsu dago auto eta umeendako”

aurten ez dakit zer gertatu den. Hortaz, guk egin beharko dugu. Eta gero, oso-oso ona izango litzateke pilotalekua estaliko balute. Jende piloia etortzen da, eta, jakina, euria denean ezin da erabili. Eta benetan, udan jende morda ibiltzen da pilotan. **Auzokoak?** Ez. Hemengoak eta kanpokoak, denetarik etortzen da. Eta gero, beste gauza bat oso polita izango litzatekeena da hau atzealdeko mendi hau, Torralde mendia, bada, hor dagoen pinudia erosi eta Udalak parke bat egitea. Hori egundokoa izango litzateke. **Hori zure burutazioa da ala auzotarren eskaera bat?** Uste dut auzoko guztiak leudekeela ados. Aramaioko erdi-erdian dagoen punturik altuena da. Oso polita. Sasoi baten, auzoko jaietako egun batean, bazen ohitura jana hartu eta Torraldera igotzeko. Orain ere, parkea ipintzen badute, antolatuko dugu jaiegunen bat (barreak). **Hortaz, berez, jendea etortzen da Barajuenera, ezta?** Bai. Pilotalekura, taberna ere badago, elkarte beteta egoten da, udan bereziki... Eta pasealeku polita ere bada. Untzillatik, Zabolatik eta Azkoagatik etortzen dira... Maiatzetik hasi eta irail-urrira arte.

ERRETRATUZAHARRA

Kontzezinoko
mojen eskola
izan zenekoa

Eskola kontuekin segituko dugu oraingo astean argazki zaharrraren tartean. Oraingo honetan, Kontzezinoko mojen eskola zuten garaiko argazkia utzi digute. Kontatu digutenez, eskolakoek ohitura zuten ikasturte bakoitzean ikasleei argazki bat ateratzeko, hirunka. Gero, ikasturte amaieran, oparitxo bat ematen zieten, argazkiarekin.

Guri utzi diguten argazkia 1968koa da, martxoaren 5ekoa, hain zuzen ere. Agertzen diren mutikoez sei urte zituzten, eta Mari zen euren andereñoa; Señorita Mari esaten zioten. Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita, mahaiaren bueltan: Alberto Jauregi, Jon Aginalde eta Antxon Abarrategi. Eta izkinako betaurrekodu-na Faustino Carrasco da. Mingaina ateratzen dagoen mutikoa, berriz, Goio Arana da. Jon Aginalderen atzean dagoena, eserita, Rafael Zalama dago, eta atze-atzean zutik dagoena Iñaki Sarasola da. Bestelakoen artean, atzean zuri jantzita dagoena Aranbarritarren bat izan daitekeela esan digute. Gaine-



rakoak ezin izan ditugu identifikatu. Gure berriemaileek kontatu digute Kontzezinotik San Josera joaten zirela mutikoak, eta handik San Viatorrera. Neskak ere baziren Kontzezinoko eskoletan, mutilengandik bananduta. Haiak Kontzezinotik Ferixalekura pasatzen ziren, aurrez fabrikatutako

eskola batera, eta handik Mesedeetako-en ikastetxera joaten ziren.

Argazkiko eskolaren gainean, kontatu digute komentuko mojetako batzuk klausurakoak zirela; eskola pribatuak zirela eta gaztelera hutsa erabiltzen zutela irakasteko.

Oharra: joan den asteko argazki

zaharreen ipini genuen berriemailea Lupe Muxika zela, baina Lupe Navarro zen ipini beharreko izena.

Argazkia eta informazioa: Goio Arana, Antxon Abarrategi eta San Andresko zenbait auzotar.
Urtea: 1968.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Andres
auzoan
berritze lanak

1989. urtean, Arrasateko Udalak San Andres auzoaren ezaugarriei buruzko hainbat ikerketa egin zituen. Auzoaren ezaugarriak aztertzeaz gain, etxez etxe inkestak egiten ibili ziren. Ikerketa horren helburua zen auzoa hobetzeko zein behar zeuden ikustea, eta herritarrek zein eskaera zuten argitzea. Auzoko hobekuntza lanak hainbat fasetan egin dituzte.



≈ 1991

Azkeneko urteotan auzoak izan duen aldaketa nabarmenetako bat izan da etxe blokeetan jarri dituzten igogailuak.



2004

Lehen, garaiera handiko eraikinetan bakarrik jartzen zituzten igogailuak. San Andresen dorreak baino ez zuten igogailua.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- BEGOÑA BARCINA Otolora lizentziaduna 29 635 70 88 88
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22